

noaua

FESTETAN MURGILTZEKO PREST DIRA ZUBIETARRAK

Jaien hasierako suziria datorren astelehenean piztuko dute / 12



ARGAZKIA: KORO ARROYO



UDALA

**San Esteban
kalearen goiko
zatia eraberritu
dute** / 10



INFINITRIMAN

**Mikel Otaegi
triatloilaria:
"Kirolak lasaitu
egiten nau"** / 18



DONOSTIA KULTURA

**Usurbilgo arrastoa
'Igeldoko historia
eta istorioak'
liburuan** / 24

**Donostiako
Klasikoa Usurbildik
eta Aginagatik
igaroko da** / 26



Udako jaietako egitarauak




USURBIL
OPTIKA

4 Urteko
Garantia

Interes
Gabeko
Finantzaketa
*Banketxeak
onartzean

Entzumen
azterketa
DOAN

Entzun
telebista
eta mugikorra
zure audifonoetan



**PILARIK
GABEKO**
TEKNOLOGIARIK
AURRERATUENA

943 37 02 69

ZUBIAURRENEA 10, USURBIL usurbiloptika@hotmail.com

begi • bistan

begi-bistan.com

**INOIZ EZ DA JAITSIERA BAT
HAIN DIBERTIGARRIA IZAN**

JEITSI ORIA
SENTITU NATURA
BAKARRIK EDO NORBAITEKIN,
ZUK ERABAKI



657 79 46 77
info@begi-bistan.com




**ERRESERBATU
HEMEN**

EUSKADI
BASQUE COUNTRY



ARATZ
zabaleta anaiak
1989tik



Gure lehentasuna gure ekoizleak eta bertako produktuak bultzatzea da



•eguneko menua • karta • pintxoak • bokatak • plater konbinatuak
Igara Bidea, 15, Donostia erreserbak: 943 21 92 04

"Epaiak euskara eta euskal hiztunak mespretxatzen ditu"

"Oldarraldi judizialaren aurrean", azaroaren 4an Bilbon egingo den manifestaziora joateko deia luzatu dute Euskal Autonomia Erkidegoko hautetsi talde zabal batek eta euskalgintzako hainbat erakunde.

Espainiako Konstituzio Auzitegiak udaletxeek euskara hutsean jardutea ahalbidetzen duen Udal Legearen 6.2 arti-



Euskararen normalizazioaren eta biziberritzearen aldeko dei irmoa egin du EAEko hautetsi talde batek. NOAUA

kulua baliogabetzea erabaki zuen uztailaren 6an.

Biharamunean, Usurbilen agerraldi jendetsua egin zuen UEMAK. Aurreko astean, au-

zibidea abiarazi zuen Bilboko Auzitegi Nagusiaren atarian batu ziren EAEko alkate, hautetsi eta euskalgintzako ordezkari nagusiak. Sententziak

euskararen biziberritzea oztopatzen duela diote, "helburu horren alde udaletatik bidertzen diren hizkuntza-politikak guztiz mugatzen baititu".

Garbigune mugikorra, Aginagan

Uztailaren 20tik aurrera, garbigune mugikorra Aginagan izango da. Era honetan, etxeko hondakinen berrerabilpena eta birziklatzea sustatu nahi da. Hondakinak bere horretan bota, poltsarik gabe. Uztailaren 27an osteguna, garbigune mugikorra Txokoaldera eramango dute.

Ziortzako kanpaldiari lotutako oharra

Abuztuaren 5ean larunbata, "kanpaldiaren desmuntaiaren egunean zuen laguntza beharrezkoa izango zaigu. Prest bazaude bidali mezu bat ziortzakanpaldia@gmail.com helbidera zure izen-abizenak, telefonoa eta kotxea ekarri dezakezuen ala ez adieraziz. Gazteak ere etor daitezke".

Hurrengo odol-ematea, irailaren 4an

Usurbilgo Odol Emaileen Elkartek bi hilean behin egiten du deialdia. Hurrengo hitzordua, irailaren 4an, 16:30-20:30 artean Udarregi ikastolan. Aurrez odola eman dutenei hitzordua finkatuko zaie. Lehen aldiz odola ematen dutenek dei dezatela 943 007 884 telefono zenbakira.

Oporretara goaz, datorren aldizkaria irailaren 7an

Esku artean duzun aldizkari hau izango da ikasturteko azkena. Udako oporraldiaren ondoren itzuliko da NOAUA etxeetako buzoietara.

Irailaren 7ko argitalpeneko oharra irailaren 1a baino lehen helarazi behar dituzue erredakzioa@noaua.eus postara helbidera.



Argitaratzailea:
Noaua Kultur Elkartea
Bordaberrí 3, Eguzkitzaldea
20.170 Usurbil
943 360 321
elkartea@noaua.eus

Elkarteko lehendakaria:
Idoia Torregarai.
Aldizkari koordinatzailea:
Imanol Ubeda.
Idazkaria:
Alaitz Aizpurua.

Erredakzio kontseilua:
Aritz Lasarte, Ixaso Orbeagozo,
Imanol Ubeda.
Diseinua: Goiena.
Publizitate arduraduna:
Beatriz Alda.

Tel.: 943-360 321
publizitatea@noaua.eus
Banatzailleak:
Iñaki Irazusta, Iban Maritxalar.
Lege Gordailua: SS-668-96.
ISSN: 1136-6818.

Tirada: 2.980 ale.
Imprimategia:
Antza inprimategia. Zirkuitu
ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.
Harremanetarako:
erredakzioa@noaua.eus



Gipuzkoako Foru Aldundia



Usurbilgo Udala

IRITZIA



AINHOA AZPIROZ EIZMENDI

Arrakasta ala arrastaka?

Uztailaren 13an, goizeko 7:00etako albistegia entzuten Euskadi Irratian, eta a zer datu zaparrada, enpatxatuta geratu naiz. Eguneko notiziak zein diren galdetuz gero, ez dakit gogoratzeko gai izango nintzatekeen; datuak behintzat ez. Zenbakiak zenbakien atzetik, albiste bakoitzean errekorrak eta zenbaki altuak eman dituzte, zifrak nabarmenduz, azpimarratuz, inportantea baita kopurua!

2.300.000. Hasteko, lehen albistean, bi milioi eta hirurehun mila herritarren zifra eman dute. Uztailaren 23ko Espainiako Gorteetako hauteskundeak direla-eta, posta bulegoak jendez gainezka omen daude posta bidezko botoa eskatzeko, eta orotara 2.300.000 herritarrek egin omen dute eskaera.

600.000 eta 48.000. Ondorengo albistean ere datuak protagonista: seirehun milatik gora eta ia berrogei eta zortzi mila. Hondarribiko eta Loiuako aireportuek inoizko bidairirik gehien izan dute pasa den ekainean eta errekorra hautsi dute. Loiuun 600.000tik gora bidaiari baino gehiago ibili dira, iazko ekainean baino

2, 3, 5, 7, 11, 101, 131, 151, 181, 191, 313, 353, 373, 383, 727, 757, 787, 797, 919, 929, 10301, 10501, 10601, 11311, 11411, 12421, 12721...

"Zenbakiak zenbakien atzetik, albiste bakoitzean errekorrak eta zenbaki altuak eman dituzte".

%13 gehiago. Hondarribiatik ia 48.000 bidaiari pasa dira, iaz baino %22 gehiago. Eta Forondan ez dute errekorrik hautsi, baina iaz baino %36 gehiago ibili dira, beraz, bidaiari kopuruak nabarmen egin du gora.

Sanferminetan ere datuak nagusi: %47 igo dira lapurretak. Uztailaren 10a bitartean 1.200 salaketa egon ziren eta horietatik 900 baino gehiago lapurrenengatik. Bereziki parkinetan lo zegoen jendeari eginda-

"ARRAKASTA SOZIALA ZENBAKITAN NEURTZERA TEMATUTA GAUDE"

ko lapurretak izan dira, eta nagusiki sakelakoen lapurretak, gero bigarren esku merkatuan saltzeko.

130.000. Frantzian, uztailaren 14ko festa nazionalen sortu zitezkeen istiluei aurre egiteko ehun eta hogeita hamar mila polizia eta jendarme atera ziren kaleetara.

1.400. 58 herrialdetatik iritsitako mila eta laurehun kirolari baino gehiagok hartuko zuten parte Gasteizko Ironmanean.

Datuak, datuak eta datuak; zenbat eta altuagoak, hobe; zenbat eta puztuagoak, arrakasta eskurago. Arrakasta soziala zenbakitan neurtzera tematuta gaude, helburua aldamenekoa baino gehiago lortzea delarik, arrastaka iritsi behar badugu ere.

Usurbil 1936 elkartearen auzolanerako deia

Andatzakogerra garai kolubakien berreskuratze lanen bigarren faseari ekitera doaz. Uztailaren 19tik 28ra bideratuko duten auzolanean parte hartu nahi dutenek 616 48 25 21 telefono zenbakira dei dezatela. "Iazko udan egin zen lehen fasea baina materiala uste baino gehiago atera zenez, bukatu gabe geratu ziren indusketak. Oraingo fasearekin bukatu nahi dira, gerora ondo hesitu eta behar bezala seinaleztatuz, herritik haraino ibilbide bat osatzeko herritarrek bisita dezaten".

Euskararen merezimenduko saria eskuratu du Artzabal jatetxeak

Jakitea elkarreke eredugarritzat jo du Gure Pakea jubilatuko elkarteko jatetxean sustatzen den euskararen erabilera. Bai bere plateren berri ematen duten kartan, sare sozialetan, lan taldean eta bezeroekiko hartuemanetan nahiz antolatzen dituzten ekimenetan.

Artzabal jatetxeak poza jaso zuten saria. "Beti da plazerra merezimendu bat jasotzea, nola ez! Jarraituko dugu euskara sustatzen, baina batez ere hitz egiten, gozatzen eta bizitzen".



Igor Gorriti, saria jaso berritan.

Okindegia-Gozotegia
LABE-GOXO

txirriStra
TABERNA
· PLATER KONBINATUAK · BOKATAK · PINTXOAK
Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

patxi
PARRIKHA
JATETXEA
· bazkariak EGUNERO
· afariak ostirala eta larunbata
© 943 362725 · © 688 690 361



Egurtzegiren inaugurazio onean parte hartu zuten erakundeetako ordezkariak. Irudi gehiago, noaua.eus atarian. NOAUA!

Egurtzegi, zaintzadun bizilekuak zabalik

Uztailaren 11n inauguratu zuten, erreferentzialtaz jo zuten Kalezarko zaintzadun etxebizitzaren auzune berria.

110 bizileku, 127 bizilagunen-tzako lekua, 15-20 lagunentzako 7 bizikidetza-unitateetan antolatutako. Horrekin batera, Eguneko Zentroa eta komunitatearentzako zabalik izango den terrazadun kafetegia edota ile-apaindegia. Guztia bertan bizitzeko gero edota bertara bisitan joanda, espazio argitsu, ireki eta goxoa. Halakoa da uztailaren 11n ofizialki inauguratu zuten Egurtzegi, Kalezarko zaintzadun etxebizitzaren auzune berria. Garai batean eremu horretan zegoen baseritik eta bertako Katalina de Elizegi emaku-

mearen omenez datorkio izena. "Zaintza gaiez ari garenean, aurrerantzean askotan aterako den izena dugu", aurreikusi zuen irekiera ekitaldian parte hartu eta egitasmo honen sustatzaile den Matia Patronatuko lehendakari Mari Karmen Garmendiak. Berarentzat, "Egurtzegi esan nahi du, auzolana, ekosistema, pertsona ardatz eta helburu, elkarlana, errespetua, duintasuna, hori guztia darama bere baitan, eta gainera, gizartean txertatutakoa da". Gogoan hartu nahi izan zituen eta eskerrak eman, "konpromiso handia"

adierazi zuten erakunde eta herrikideei.

Oinarrizko eskubideak ardatz Udaleko, Diputazioko, Egurtzegiko eta Matiako ordezkariak edota Usurbilen abian den zaintza ekosistema berriaren eraikuntza prozesuan parte hartzen ari diren eragile, teknikari eta herrikideak batu zituen, Orbeldiren aurrekuak abiarazi, Jon Maiaren bertsio girotu eta instalakuntzok barrutik ezagutzeko aukera eman zuen inaugurazio ekitaldiak. "Hemen ez da hitz egiten geletaz, bizilekuak daude. Ez dago sarrerarik, ongi etorriak egiten dira", adierazi zuen Egurtzegiko zuzendari Jaione Artiedak. Bere esanetan,

"EGURTZEGIK ESAN NAHI DU AUZOLANA, EKOSISTEMA"

"guztio ditugun eskubideetan oinarritutako" zaintza ereduari erantzuten dio auzune berriari; norbere duintasun, autonomia, erabakitze eskubide eta bizi proiektuarekin jarraitzeko eskubideari, zaintza pertsonalizatua bermatzeaz gain. "Pertsona bat, zaintza plan bat" alegia, Usurbilgo alkate Agurtzane Solaberrietak azaldu zuen moduan. "Usurbilgo zaintza eredu berriak pertsona bakoitzaren lehen-tasunak, nahiak eta erabakiak aintzat hartuko ditu bere bizi proiektuan hausturarik ez eragiteko".

Elkarlana, norabidea

Zaintza sare horren parte izango da aurrerantzean Egurtzegi, "zaintzaren alorrean punta-puntakoa eta erreferentziatzeko proiektua". Alkateak gogoratu zuen, azken hiru urteotan Usurbil zaintzailea izateko herrian abian den prozesua. Halere, "arreta ereduaren eraldaketa erabatekoa" izateko ezinbestekotzat jo zuen "erakunde guztiok norabide berean arraun egitea, estrategia integral baten baitan".

Egitasmo honen eta Gipuzkoan diren beste 13 udalerrietakoen "eredua elkarlanean oinarritzen da" hain zuzen, Gipuzkoako Ahaldu Nagusi Eider Mendozak Egurtzegiren irekiera ekitaldian adierazi zuenez. "Zaintzaren ekosistema lokalaren garapena" bideratzen ari dira herri horietan guztietan. Usurbilgoa, zaintzaren "abangoardian" kokatu eta itsasargitaz jo zuen. "Urratu dezagun osasunez egoitza hau ere eta izan dadila etxe goxo bat bertan egongo diren guztientzat eta topaleku usurbildar guztientzat".

Antxeta
TABERNA
egunero irekitzen dugu!
eguneko menua · asteburuko menua
oilasko erreak, ogitartekoak, razioak...
paellak enkarguz!
943 54 43 12 Zubiaurrena 6, Usurbil.

eskura
elikadura eta dietetika aholkularitza
DIABETESA, HIPERTENSIOA,
GIZENTASUNA, ELIKADURA
ETA KOLESTEROL ARAZOAK
688 843 696
Zubiaurrena 1, 1c Usurbil

ARRANDEGIA
PELLO
9:00-13:30
ASTEARTETIK LARUNBATERA
PUNTAPAX 7, 650 31 31 91

BORDATXO
taberna
Pintxo Bereziak
943 37 10 42

Urteko bigarren bozketa egunaren atarian

Igande honetan Espainiako Gorteak berritzeko aukera izango dute hautesleek; diputatuen Kongresua batetik, Senatua bestetik.

Espainiako Kongresuari dagokionez, hamahiru eragile politiko hauen artean hautatu ahalko dute usurbildarrek: EHBildu, PSOE, EAJ-PNV, PP, Frente Obrero (FO), PACMA, VOX, Euskadiko Langileen Alderdi Komunistak (ELAK), Aulki Zuriak-Escaños en Blanco, Bidezko Mundurantz (PUM+J), Recortes Cero, Sumar eta Union Cristiano Democrata Española (UCDE).


Zerrenda hauetan herrikideak izango ditugu; EHBilduren Gipuzkoako zerrendaburua izango da bigarren ezkerrean Mertxe Aizpurua Arzallus, 2011-15 legealdian Usurbilgo alkate izandakoa. Bestalde, udal hauteskundeetako zerrendetan aurkeztu ostean, oraingo honetan ere, Espainiako Kongresurako zerrenda du Aulki Zuriak-ek eta Gipuzkoako zerrendaburua Luis Mari Ormaetxea Santsiñe-

na izango da (duela lau urte Senaturako hautagai-zerrendan hirugarren aurkeztu zen). Beste herrikide bat lehen ordezkaria Aitor Pikabea Lamuedra.

Senatua berritzeko hauteskundeetara hamabi eragile aurkeztu dira: EHBildu, PSOE, EAJ-PNV, PP, PACMA, VOX, Euskadiko Langileen Alderdi Komunistak (PCTE/ELAK), Aulki Zuriak-Escaños en Blanco, Bidezko Mundurantz (PUM+J), Recortes Cero eta Sumar. Kasu honetan ere herrikiderik aurkitu dugu Senaturako hautagaitzetan ere. Gipuzkoatik PSOE-ko osatu duen taldeko lehen hautagaiaren lehen ordezkaria Ricardo Crespo Rubio izango da (Usurbilgo zinegotzia izan zen 2011-15 legealdian).

Hauteslekuak

Bi bozka paper ezberdin izango dituzte beraz hauteskun-



Espainiako Kongresurako 13 hautagaitza daude aukeran; Senatuan, 12. NOAUA

deok, baina ohiko hautesleku kopurua. Hiru mahai kokatuko dituzte Udaregi ikastolako eraikin gorriko erdiko aretoan, beste bi Kalezarko Haur Eskolan eta mahai bana Aginagako Eskolan, Santuenea auzo elkartearen eta Zubietako Lanbide Eskolan (Usurbil aldeko zubietarrentzat; Eskola Txikia Donostia aldeko zubietarrentzat).

Hautagaien solasean

Aurreko hauteskunde deialdietako irizpideari jarraiki, Usur-

bilgo Udalean ordezkariak duten hiru alderdien (EHBildu, EAJ-PNV, PSE-EE) hautagaiak elkarrizketatu ditugu. Mertxe Aizpurua, Maribel Vaquero eta Rafaela Romero, hurrenez hurren.

Emaitzen jarraipena

Igandeko hauteskunde egunaren berri noaia.eus atarian emango dizuegu; hauteslekuen irekiera, parte hartze datuak edota Usurbilen izango diren emaitzak.

NIRE USTEZ



LUISMARI ORMAETXEA AULKI ZURIAK ALDERDIKO HAUTAGAIA

Hustu ditzagun Kongresua eta Senatua!

Aulkiak hutsik uzteko Aulki Zuriak-Escaños en Blanco alderdia ordezkariak sentitzen ez direnentzako aukera da.

Aukera politiko egokia aurkitzen ez duten herritarren ordezkari izan nahi dugu; botoa zuriz ematen dutenen botoa eraginkorra egiten duen aukera bat gara; protesta egiten dutenen aukera bat

gara, protesta jarleku hutsu batean islatuko baita; abstentzioan geratzen direnen aukeretako bat gara, gurekin botoa beti baita baliagarria, aulki edo eserleku hustu moduan islatzen baita beti. Aulki Zuriak-ek hiritarrentzat proposatzen duena berezia da. Beste alderdi batzuek egiten dituzten promesetatik erabat desberdina da.

Gure hauteskunde-programa esaldi batean laburtzen da: "Lortuko diren aulkiak askatzea, edozein soldata edo diru-sarrerari uko eginez". Herritarrek Kongresuan eta Senatuan eserleku hutsu bat uzteko eskubidea dutela eta aulki horrek ez diela herritarrei euro bat ere ordaindu behar defendatzen dugu. Legegintzaldi osoan zehar liberatutako aulki horiek ez dira okupatuko eta, beraz, uko egiten diogu legez eta erregelamenduz dagozkigun ordainsari guztiak jasotzeari.

Aulki Zuriak-eko hautagaiak, behar adina boto lortzen

badute, aulkiak libre, hutsik, okupatu gabe utziko dituzte. Horrela, askatzen den aulki politikarekin baztertuta, ahaztuta eta frustratuta sentitzen diren sinboloa izango da.

Pertsona guztiak dute botoa emateko eskubidea, baina boto guztiak ez dute balio bera. Kongresuan eta Senatuan eserleku hutsak uzteko Aulki Zuriak-ek sistema politikoaren kalitate demokratikoa neurtuko du. Ohiko alderdi nagusiek ordezkariak ez dituzten herritarrenak direlako jarleku libreak, hutsak.

Hustu ditzagun Kongresua eta Senatua!

EH Bildu: "Madrilen indar eraginkorra izan gara"

MERTXE AIZPURUA EH BILDUREN HAUTAGAIA

Usurbildar politikaria Gipuzkoako EH Bilduren hautagaia izango da beste behin ere. "Guk ez dugu eliteen aurrean justifikatu beharrik", azaldu digu. "Eskuak libre ditugu erabakiak hartzeko".

Espainiako Gorteetako ordezkariak aukeratu behar dira uztailearen 23ko hauteskundeetan. Zure alderdiak ordezkariak lortzen badu, zeintzuk izango dira bultzatuko dituen egitasmo nagusiak?

Azken lau urteotan egin dugun bezala, euskal herritarren eskubideak eta askatasunak defendatzeko eta zabaltzeko, aurrera egiteko, konpromisoa hartu dugu gure jendartearekin.

Madrilen indar eraginkorra izan gara eta lortutako ari segida emateko asmoarekin goaz. Madrilerako goaz errazteko etxebizitza bat eduki ahal izatea. Aurreko legegintzaldian egin genuen bezala, alargun pentsioak eta ez-kontributiboak igotzealortu genuen, pentsioak gehiago handitu behar direla uste dugu eta oraingoan ere horretan saiatuko gara. Gure autogobernuaren defentsa egiteaz gain, zintzilik dauden transferentziak kontutan hartuta, Estaturik gabeko gainontzeko nazioekin bidea egiten ari gara, Estatuaren izaera plurinazionala aldarrikatzeko eta dagozkigun eskubideak, erabakitze eskubidea bera, errespetatuak izan daitezten.

Azken finean, euskal agenda daramagu Madrilerako. Zeren, zer da euskal agenda euskal herritarrek dituzten eguneroko beharrei erantzutea ez bada? Enplegua, lan eskubideak eta eremu honetan, azken Lan Erreformatik kanpo geratu ziren neurriak berreskuratzeko lan egingo dugu, prezioen kontrola eta bizitzaren garestitze aurre egiteko neu-



"Euskal agenda daramagu Madrilerako". ARGAZKIA: EHBILDU.

riarri proposatuko ditugu, gizarte babesa ziurtatzeko erabakigarriak diren proposamenak eramango, hala nola klima larrialdia erantzuteko eta askatasun demokratikoak, hau da, feminismoa, LGTBIQ+, migrazioa, adierazpen askatasuna eta memoria inklusiboa eta bizikidetzaren aldeko neurriak planteatuko ditugu.

Gainera, EH Bildutik esan dezakegu euskal herritarren ongizatean ez beste ezertan pentsatuta erabakiak hartu ahal izateko askatasun osoa dugula; izan ere, guk ez dugu eliteen aurrean justifikatu beharrik. Eskuak libre ditugu erabakiak hartzeko.

Ez diogu erantzuten eta ez diogu leialtasunik zor enpresa handiei, banketxei eta energia enporioei. Horregatik, ez dugu sekula hutsik egingo erabakiak hartzerako orduan: euskal he-

rritarren bizitzak hobetzeko egingo baitugu beti. Orain arte bezala.

Borobilduz, Euskal Herria Bilduren konpromisoak, eta hitzekoak garelako frogatu dugu, lau esalditan laburbilduko nitzuke: eskubide gehiago, ongizate gehiago, askatasun gehiago eta burujabetza gehiago lortzen ahaleginduko gara gure adore eta indar guztiarekin.

Eta, azkenik, gardenak gara, beste batzuekin argi mintzatzen ez diren bitartean. EH Bildurengatik bada, eskuin espainiarrak ez du gobernurik eskuratuko eta ezta ere hauek baldintzatuko

"ABSTENTZIOA EZ DA AUKERA BAT. ASKO BAITAGO JOKOAN"

dituzten politiketan eraginik izango. Berdin PP bakarrik bada, edo PP-VOX koalizioan bada.

Abstentzioa altua izan zen azken udal hauteskundeetan. Bozka eman edo ez eman, zalantzan dagoen horri zer esango zenioke?

Ematen ez duzun bozka hori seguruenik eskuinaren mesederako izango dela. Eta uzten duzun hutsune hori segur aski inoiz konpartituko ez zenukeen neurri eta legeak ezartzeko balioko duela.

Egoera irakurtzen eta ulertzen jakin behar dugu, eta jakin behar dugu EH Bildu dela Euskal Herria aukera bakarra, eta bereziki Gipuzkoan, eskuina geldiarazteko eta politika publikoetan azelerazioa emateko benetako aukerak dituen.

Bizi dugun egoeraren aurrean, Euskal Herria ezkerreko botoirik ezin da bidean geratu. Onartu ezin dugun luxu bat da hori. Boto guztiak aprobetxatu behar dira eta euskal gizartearen eta Gipuzkoaren gehiengo handi batek eskatzen duen norabidean kokatu. Itxaropenaren norabidean, hain zuzen ere, batzuek eraman nahi dituzten beldurra eta etsipenaren bidean.

Hori esango nioke zalantzan dagoenari. Abstentzioa ez da aukera bat, asko baitago jokoan. Euskal Herria aintz honetan, aurrerakoia, euskalduna, feminista eta abertzalea den honetan, etorkizun hobe, justu eta jasangarriagoa nahi duenaren botoa ezin da etxean geratu. Nik herri hori maite dut, pertsona guztien eskubide eta askatasunak babestu eta zabaltzen dituen herri libre. Eta hori da ordezkatzeko duguna Madrilen.

Horregatik, pertsona horri bere konfiantza gudan jartzea eskatuko nioke. Printzipioak ditugulako, hitzekoak garelako, entzuten dakigulako eta bereziki soluzioak eskaintzen ditugulako.

Horregatik guztiagatik eskatuko nioke bozkatzea eta benetan eraginkorra eta eraldatzailea izango den bozka eman dezala. Guztion onerako izango da eta.

EAJ-PNV: "Pertsonen ongizateari begira egingo dugu lan"

MARIBEL VAQUERO EAJ-PNV-REN HAUTAGAIA

"Ez dugu politika populistarik ezta demagogikorik egiten", azaldu digu Gipuzkoako EAJ-PNVren zerrendaburuak. "Politika eraikitzaile eta demokratikoan sinesten dugu".

Espainiako Gorteetako ordezkariak aukeratu behar dira uztailaren 23ko hauteskundeetan. Zure alderdiak ordezkariarik lortzen badu, zeintzuk izango dira bultzatuko dituen egitasmo nagusiak?

Eusko Alderdi Jeltzaleak hiru ardatz nagusi ditu oinarri eta horiek defendatzen gabiltza Euskadiko herri guztietan. Euskadiren ahotsa Madrilerera eramango dugu demokrazia, giza eskubideak eta autogobernuaren defentsa egiteko. Autogobernu gehiago izateak ongizate handiagoa dakar gure herria eta gure herritarrentzako, eta guk, oinarri bezala Euskadiren eta herritarren ongizatea dugu.

Programa propioa dugu, proposamen zehatzekin. Pertsonen alboan egongo gara eta haien ongizateari begira egingo dugu lan, justizia soziala eta diskriminazio eza defendatuz. Emakume eta gizonen arteko berdintasuna, indarkeria matxistaren kontrako borroka eta soldata arrakala ezabatzeko lan egingo dugu, Euskadiko instituzioetan defendatzen dugun moduan.

Politika aldarrikatzen dugu herritarren alde lan egiten den zerbitzu gisa ulertzen dugulako. Ez dugu politika populistarik ezta demagogikorik egiten, Eusko Alderdi Jeltzaleak politika eraikitzaile eta demokratikoan sinesten du. Ez dugu atzerapausorik onartuko herritarren eskubideen babeserako emandako pausuetan, ezta inboluzio demokratikorik ere.



"Eusko Alderdi Jeltzalearen hautua bakarra da, Euskadi". ARGAZKIA: EAJ-PNV.

Klima aldaketaren kontrako programa zehatza aurkezten dugu eta ingurumenaren eta energiaren jasangarritasuna sustatzen dugu. Kontsumitzaile zaugarria babesteko eta arrazoizko tarifak ezartzeko bai herritarrentzat, enpresentzat eta industriarentzat.

Ongizatea eraiki nahi dugu Euskadirentzako. Horretarako, esparru publiko eta pribatuaren arteko lankidetzara bultzatuko dugu. Baita industriaren, ETE-en eta autonomoen aldeko apustua eginez, eta berrikuntzaren eta nazioartekotzearen alde ere. Ezinbestekoa da behar bezala ordaindutako enpleguak sortzea, bereziki gazteentzat, gizarte oparora lortzeko.

Euskara hizkuntza gutxitua izanik, egunero jasaten dituen erasoeri aurre egiteko lehen leherro izango gara Madrilen. EAJ-PNV-k euskal hiztunen eskubideak defendatuko ditu ordezkarietara duen instituzio guztietan.

Egungo iluntasunarekin amaitzeko, botere publikoen jardunean gardentasuna exijitzeko, sekretu ofizialen lege berria onartu dadin, gure ahalegin guztia egin dugu eta ibilbide

"BOTOA EMATEA GARRANTZITSUA DA, HERRI BEZALA DUGUN INDARRA EZ GALTZEKO"

berdina egiten jarraituko dugu. Ez dugu amore emango.

Abstentzioa altua izan zen azken udal hauteskundeetan. Bozka eman edo ez eman, zalantzan dagoen horri zer esango zenioke?

Bozka eman edo ez eman zalantzan dagoen horri esango nioke asko dagoela jokoan. Hauteskunde garai guztietan errepikatzen dugun leloa bada ere, oraingo honetan talde politikoaren programak irakurrita eta adierazpenak entzunda, begi-bistakoa da horrela dela. Euskal autogobernua arriskuan dagoela eta inoiz baino gehiago defendatu behar izango dugula. Askok borrokatu dugu honaino iristeko eta ezin dugu guk lortutako eskubideetan atzera pausorik onartu guztien kaltetan doalako.

Egun, daukagun ongizatea arriskuan jarri daiteke, inboluzio demokratiko bat eman daiteke, eta horri herritarrek bere botoaren bidez aurre egin diezaioke. Hala ere, argi utzi nahi dut uztailaren 23an erabakiko duguna ez dela Sanchez edo Feijóo, erabakiko duguna euskaldunon ahotsa nork izango duen Madrilen. Eta Eusko Alderdi Jeltzalearen hautua bakarra da, Euskadi.

Euskadi defendatu beharko dugu, gure hizkuntza, instituzioak, eskubide historikoak eta abar bortizki horren kontra egiten dutenen aurka. Eta azkeneko urteetan onartutako pertsonen eskubideetan aurrerakoiak izan diren legeetan ez dugu atzera pausorik onartuko (Trans legea, Abortuaren legea, eutanasia, askatasun sexuala eta abar).

Autogobernuaren balioamahirik gainean jartzen dugu une oro, gure gizarte eta herritarrak defendatzen ditugulako. Kohezio soziala, ongizate soziala eta justizia soziala bermatzea ezinbestekoa da eta Eusko Alderdi Jeltzaleak gai hauek bultzatzeko konpromiso irmoa hartzen dugu. Uztailaren 23ko hauteskundeetan botoa ematea garrantzitsua da, herri bezala dugun indarra ez galtzeko.

PSE-EE: "Guk bozka ematen badugu, PPVOX kanpoan geratuko dira"

RAFAELA ROMERO PSE-EE-REN HAUTAGAIA

Gipuzkoako PSE-EEren zerrrendaburuak bozka progresistaren mobilizazioa eskatzen du, "arrisku gorrian baitira azken urteotan denon artean lortu ditugun eskubideak eta askatasunak".

Espainiako Gorteetako ordezkariak aukeratu behar dira uztailaren 23ko hauteskundeetan. Zure alderdiak ordezkariak lortzen badu, zeintzuk izango dira bultzatuko dituen egitasmo nagusiak?

Sozialista gisa, hitza ematen dut lanean segiko dudala, eskubideen eta askatasunen arloetan atzerapenik izan ez dadin.

Pertsonala politikoa da, eta koherentea izaten segiko dut orain arte gidari izan ditudan baloreen mesedeetan: gizon eta emakumez osaturiko gizarte berdinzale eta libre baten alde.

Mugimendu feministari leial izango naiz, eta Kongresuan feminismoaren inguruko aliantza indartzen jarraituko dut.

Giza eskubideen aldeko mugimendu indartsuena da feminismoa, eta iraultzaileena, agenda politikoa pertsona guztien eskubide unibertsalak lehentasuna izango dutela ziurtatzeko baliogarri dena.

Kongresuan egingo dudana lanarekin, Pedro Sánchezek duela bost urte hasi zuen bide-orrian sakontzen lagunduko dut, Espainia Europarentzat eredu izatea lortu duelako: bidezko hazkunde ekonomikoaren adibide garbia, enplegu sendo eta duina sortzen datu ikaragarriak erdietsi ditu, soldata-baldintza hobekak ziurtatuz.



"Gobernu progresistak egin duen lanarekin harro sentitzen naiz". ARGAZKIA: PSE-EE.

Gainera, bereziki harro sentitzen naiz gobernu progresistak egin duen lanarekin. Pedro Sánchezek gidari, Europako babes sozial indartsuena eraiki du.

Sozialistok erakutsi dugu badagoela Madrildik gobernatzeko beste modu bat, eskuinak dituen bestelako lehentasunak ditugulako: politika publiko onak bultzatzen ditugu; herri bat hobea egiten duten politikak dira bere jendea babesten eta zaintzen dituztenak, euren ongizate eta bizitza-kalitatea hobetzen dituztenak.

Espainiako eskuinak eta ultraeskuinak herriarekiko maitasuna banderaren tamainaren arabera neurtzen duten bitar-

tean, sozialistok hiritarrentzat hobea den herri baten alde lan egiten dugu. Nik gustuko dudana herria ez dago banderekin egin, bere herritarrek osatzen duten herria da nirea, bere lurraldeek eta bere hizkuntza guztiek osatzen dutena, kulturarekiko eta jendearen atxikimendu sentimenduak errespetatzen dituenak.

Nire konpromisoa da euskal sozialismoaren lehentasun

"SOZIALISTOK ERAKUTSI DUGU BADAGOELA GOBERNATZEKO BESTE MODU BAT"

izan den berbera: askatasunaren alde, bakearen alde, elkarbizitzaren alde, berdintasunaren alde eta justizia sozialaren alde lan egitea.

Horregatik, hitz ematen dut ultraeskuinari aurre egingo diodala, gehiengo progresistaren aldamenen izango naizela eta ez dugula gure aurkako gerra onartuko: feministen, ekologisten, LGTBIQ+ zein trans pertsonen, nazionalisten, ezkertiarren edo errepublikarren aurka hasi duten gerrari aurre egingo diogu.

Gorrotorearen aurrean, nire borroka, berdintasuna, askatasuna, tolerantzia, elkarbizitza eta pluraltasuna izango dira.

Horregatik, ezinbestekoa da gure agenda politikoaren alde agertzea, osasungintza zein hezkuntza publikoan inbertitzeko, babes sozialaren sistema indartzeko, pentsio duinak sostengatzeko, garraio publikoa bultzatzeko eta emergentzia klimatikoaren aurka borrokatzeko.

Abstentzioa altua izan zen azken udal hauteskundeetan. Bozka eman edo ez eman, zalantzan dagoen horri zer esango zenioke?

Bozka progresistaren mobilizazioa eskatzen dut, uztailaren 23an bozka ematera hurbildu daitezenean, arrisku gorrian baitira azken urteotan denon artean lortu ditugun eskubideak eta askatasunak.

Hauteskunde hauetan demokrazia dago jokoan. Ez badugu bozka ematen, PPVOXekoek irabaziko dute, Moncloara iritsi eta politika ultrakontserbadoreak egiteko aukera gehiago izango dituzte.

Ez bagara bozka ematera joaten, eurek irabaziko dute. Duela mende bateko Espainiara itzultzea nahi duten horiek: txuribeltzekoa, intolerantzia eta antidemokratiakoa.

Guk bozka ematen badugu, eurak kanpoan geratuko dira.

Udal brigadako lan poltsa berria osatzeko deialdia

Bete beharreko baldintzak: 16 urte beteak izatea, eskola ziurtagiria edo baliokidea eta B gidabaimena edukitzea.

Usurbilgo Udalak lan-poltsa deialdi bat iragarri zuen uztailearen 14ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, "operario eta operario laguntzaile poltsa bat oposizio sistema bidez sortzeko" hain zuzen. Xedea, "oposaketa irekiaren bidez, udal honetako operarioen eta operario laguntzaileen lan-poltsa berria osatzea hutsune ezberdinak bitarteko funtzionarioen hornitzea da. Lan-poltsari lotutako lanpostuei Administrazio Bereziko Eskala, Zerbitzu Berezien Azpieskala, E Saillapen Taldea dagozkie".

Deialdira aurkeztu nahi dutenek, besteak beste, baldintza hauek bete beharko dituzte: 16 urte beteak izatea, eskola ziurtagiria edo baliokidea izatea edota B gidabaimena izatea.

Eskabideak aurkezteko azken eguna, abuztuak 1

Interesdunek uztailearen 17tik abuztuaren 1era arteko epea izango dute eskabideak aurkezteko udal erregistroan, edo telematikoki, usurbil.eus atarian. "Eskabideak eredu ofizial eta normalizatuan egingo dira. Eredua Usurbilgo Udal Erregistroan emango da. Usurbilgo udalaren web atarian ere lortu ahal izango da helbide honetan: www.usurbil.eus".

Lan poltsak bi zati izango ditu

Eskabideak aurkezteko orria esteka honetan eskura daiteke: <https://labur.eus/O5Lgo>

Eskabideak aurkezteko epea amaitutakoan, onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrendak onartuko ditu udal-



Eskabideak aurkezteko orria, esteka honetan: <https://labur.eus/O5Lgo>

lak, eta hiru egun baliouduneko epea izango da erreklamazioak aurkezteko. Behin-behineko zerrendarekin batera, azterketa egiteko eguna, ordua eta tokia jakinaraziko dituzte. Azterketen fasea bakarra izango da, praktikoa, nahitaezkoa eta baztertzailea: gaingitu dutenen zerrenda iragarki-taulan eta udalaren webgunean argitaratuko dira. Lan poltsak bi zati izango ditu: A eta B atalak.

A atalean hizkuntza eskakizuna akreditatu dutenak egongo dira, oposaketako frogan lortutako puntuazioaren araberrako hurrenkerarekin; B atalean, hizkuntza eskakizuna akreditatu ez dutenak egongo dira, horiek ere lortutako puntuazioaren araberrako hurrenkerarekin. Beti, lehenik, A poltsa erabiliko da, eta hori agortuta izangairik ez balego joko litzaiteke B poltsara.

San Esteban kalearen goiko zatiak itxura berria du

Zorua berdindu, lau eserleku ipini eta oinezkoentzako irisgarriago egin dute. Tren geltokiaren ondoko zatia aurrerago berrituko dute.

Berrikuntza hauen bitartez, San Esteban kalea irisgarriagoa izango da oinezkoentzat eta gainera, lehentasuna izango dute. Autoentzako sarbidea eten egin dute, galtzada-harriak erabat finkatu arte. Lan hauek egiteko udalak 169.000 euro jaso ditu.

Bigarren zatia, tren geltokiko lanak amaitutakoan

San Esteban kalearen zati bat berritu dute orain, goiko zatia. "Beste zatia, San Esteban kalea tren geltokirako zubiarekin lotzen duena, tren geltoki berriko obrak amaitzean" hasiko dituztela adierazi dute udal iturriek.



Obraren kostua 196.800 eurokoa izan da, baina aurrekontuaren zati handi bat (%86 inguru) dirulaguntza baten bidez finantzatuko dela dio udalak.



Uztailaren 14ko ekitaldian, abestuz, marraztuz eta dantzan egin zioten harrera urriko Baterajotzeari. NOAUA!

Ongi etorri beroa, urriko Baterajotzeari

Azaroaren 30erako mugimendu feministak deitu duen greba orokorrari begira, urriaren 13tik 15era Euskal Herriko neska* gazteen topalekua izango den Usurbilgo Baterajotzea aurkeztu zuten iragan astean, Mikel Laboa plazan.

Azaroaren 30erako Euskal Herriko Mugimendu Feministak deitua duen zaintza eskubide kolektiboaren aldeko greba orokorrera begira, Usurbilen bilduko dira urriaren 13tik 15era Euskal Herriko Neska* Gazteak, Baterajotzea topaleku feministaren bueltan. Hitzordua uztailaren 7an aurkeztu zuten Mikel Laboa plazan. Azaldu zutenenez, "jada, hasi gara grebaren antolaketan auzo eta herrietan. Ordea, jakin badakigu gazteok beharrezko dugula antolaketa propio bat ere, gure beharrek eta proposamenek tokia izan dezaten". Horretarako baliatu nahi dute Baterajotzea.

Formatu eta sartzeko

Zorteduntzat eta esker oneko agertu ziren Baterajotzea Usurbila ekartzegatik. "Ezinbeste-

ko diren kontzientzia eta baliabideak ditugunaren seinale dira". Iragarri zutenenez, "izugarriko ekarpena egingo dio herriari. Batetik, herriko neska* gazteok topaguneak eskainiko dituen formakuntzak jasoko ditugu. Gure artean saretu eta aisialdi osasuntsu eta feministaz gozatzeko aukera izango dugu". Gainera, herriko neska* gazte gehiago bertan parte hartzea animatuko direlakoan daude. Orohar, "feminista den emakume orok ere egitarauaz gozatzeko aukera izango du. Beraz, ez izan zalantzarik asteburuan zehar gurera batzeko". Horrez gain, aurreikusi dutenez, "Baterajotzeak Usurbilen antolatzeak herri mugimenduan eragin positiboa izango du, hau aktibatuz eta militantzia esparruak mobilizatuz".

Modu batean zein bestean, "Euskal Herriko neska* gazteok gure herriarekin dugun konpromisoa adierazi nahi dugu, herrian zaintzeko konpromisoa". Tokiko merkataritza eta produktuen kontsumoaren aldeko apustua egingo dutela iragarri dute.

Horregatik, hiru egunez Usurbilen egingo den ekimen honi "babestea eskatzen dizuegu, eta orain arte izaten ari den moduan, behar zehatzak ditugunean laguntza ematea".

"HERRI MUGIMENDUAN ERAGIN POSITIBOA IZANGO DU"

"Utopiak lehertzeraino!"

Hori guztia aipatuta, herriko neska* gazte eta emakumeak deitu zituzten parte hartzera, "era honetako asteburu polit eta aberasgarri bat elkarrekin ospatu nahi dugulako eta guretzako hain aberasgarriak izan diren espazioak zuekin partekatunahi ditugulako". Topagune feminista hau babes-teko dei egin digute denoi. "Segi dezagun lanean herriarroi eta feminismoari hainbeste emango digun topagunehonen alde. Guztion bizitzen alde babestu dezagun herria feminismoz bustiko duen Baterajotzea. Egin dezagun denon elkargunea eta animatu neska! Milaka gara auzo eta herrietan lanean ari garen neska* gazteak eta beste mundu bat posible dela sinetsi eta hau eraikitzeko borrokan gaudenak. Balia-tu dezagun potentzialtasun hau utopiak gaurdanik erakitzen hasteko, eta horretarako, bidean greba orokor feminista inoizko indartsuena izan dadin. Utopiak lehertzeraino neska* gazteok baterajotzera!". Inskripzioak ehkoneskagazteak.eus atarian bideratu beharko dira.

Jaietako erasoez

Baterajotzearen aurkezpenaren bezperatan, Usurbilgo jaietako buruzko balantzea plazaratu zuen Kafe Tertuliak, ondorio nagusi batekin: "argi geratu da emakumeok* ezin ditugula festak askatasunez eta berdintasunez bizi, sexu erasoen beldur izan gabe". Gutxienez zazpi erasoren berri izan zuten jaietan. "Usurbilgo kaleak ere gune ez seguruak dira guretzat. Jarrera oldarkorak, babosoak, inbasiboak eta baita irainak ere jasan behar izan ditugu festetan zehar". Nazka eta larritasuna eragiten dien testuinguru honetan ohartarazi dutenez, "borrokan jarraituko dugu kaleak eta gauak ere gureak izan arte!". Erasotzailerei mezua; "ez badakizu egoten, ez etorri!".

Datorren astelehenean lehertuko da jai giroa Zubietan

Uztailaren 24an, arratsaldeko 18:00etan piztuko dute jaien hasiera iragarriko duen suziria. Buruhandiak plazaratuko dira segidan eta garai beretsuan zabalduko dute txozna.

Festak hastear dira Zubietan. Igandeko pilota jaialdia izango da egitarauko lehen ekitaldia. Jaiak iragarriko dituen txupinazoa ordea, datorren astelehenean piztuko dute, arratsaldeko 18:00etan.

Suziria piztu eta berehala buruhandien joan-etorriak hasiko dira. Eta une berean zabalduko dute frontoi ondoko txosna. Elene eta Maddi kantariak alaituko dute jaien hasierako ekitaldia.

Laiotz plaza taldearen gaueko dantzaldiak borobilduko du Zubietako jaien lehen eguna.



Uztailaren 24an botako dute txupinazoa. Herri afaria frontoian egingo da.

Pilota partidarako sarrerak aldeztu aurretik eskura daitezke

Uztailaren 24an botako dute txupinazoa. Bezperan ordea, puntako pilota partidak jokatuko dira. Arratsaldeko 18:00etatik aurrera, Zubietako frontoian: Larrarte-Erasun eta Mendizabal-Arrillaga bikoteen artekoa, batetik. Urmeneta-Aranguren eta Goñi II-Artetxeren artekoa, bestetik.

Sarrerak Bugatin, Irigoien, Ildargin, Txiribogan edo 673 381 544 telefonoan eskura daitezke.



Miriam Arrillaga etxean arituko da.

Santio jai zoriontsuak opa dizkizuegu!

BARAZAR

OSTATU-JATETXEA

LOGELAK KOMUNAREKIN
AFARIAK EGUNERO
BAZKARIAK IGANDE ETA
JAIEGUNETAN

943 36 33 58 ARBITZA BIDEA, ZUBIETA

ALAMANDEGI JATETXEA

• Ogitartekoak, pintxoak, razioak, plater konbinatuak...

Ondo pasa Santioetan!

Tel. 943 38 91 86 Urbitarte kalea 1, 20160 Zubieta



UDA KO ORDUTEGIA
Uztaila eta Abuztua

- Asteartea, Asteazkena eta Osteguna
18:30etatik 23:30etara
- Ostirala, Larunbata eta Igandea
12:00etatik 23:30etara

Arrapide pasalekua, 74 20160 Zubieta (Donostia) ☎ 943 37 76 62
 bugatierretegia@gmail.com • www.bugatierretegia.com



Irvin Sagardotegia

ONDO PASA SANTIOAK!!
gogoratu ezazu erresebatzea!

Petritza bidea 12, Zubieta 943.361.229



jarraitu gure sare sozialak




 facebook


 Instagram


 twitter


 noaua

www.noaua.eus

Ondo pasa SANTIOETAN!



TABERNA · PINTXOAK · RAZIOAK · BOKATAK
 · HANBURGESAK · JATETXEA · MENUAK
 · KARTA · AFARI MUSIKALAK
 OSPAKIZUNAK · EZKONTZAK · BATAIOAK



Berridi Bidea 22, ZUBIETA 943 362 049

"Sei urte nituela erregeek lehen zesta oparitu zidaten"

JOSEBA AIZPURUA ERREBOTE JOKALARIA

San Inazio Eguneko errebote partida tradizio handiko kirol ekitaldia izaten da zubietarrentzat. Aurten ere ez dute hutsik egingo eta Joko Garbiz gozatzeko aukera ere izango da San Inazio bezperan. Joseba Aizpurua taldeko kidearekin izan da NOAUA! kirol honen nondik norakoak ezagutzeko.

Gaur egun, zein egoera duzue Zubietako taldean?

Gehiago izango bagina hobe, baina ez gaude horren gaizki. Gazteen aldetik konpromiso gehixeago izan lezake, baina bederatzi bat gara taldean. Frontoian ere ibiltzen gara batzuetan, eta horretan jende gehiago aritzen gara. Zubietarrak gara ia denak, kalezartar bat daukagu eta sakatzailea lasartearra da.

Ipar Euskal Herrian kirol honek indar handia du, baina zein da Hego Euskal Herriko egoera? Zubietara, Oiartzun eta Villabonako taldeak gaude hemen inguruan. Talde gehienetan oso justuan dabilta jende kopuru aldetik.

Orain jokatzeko aritu garen Iparraldeko txapelketan zubietarrok eta oiartzuarrek taldea atera dugu, baina villabonatarrek gutxiegi zirela eta, ezin izan zuten talderik osatu lehiaketa horretarako. Euskal Herriko txapelketa ere izaten dugu, Endika Abril txapelketan ere aritzen gara, eta azken urteetan ez zaigu ondo etorri eta ez dugu parte hartu, baina Gipuzkoako txapelketa ere izaten da.

Maila onean zabiltzate azken aldian?

Nahiko ondo gabiltza, pare bat urte eskasago daramatzagu, baina 2019an eta 2018an irabazi egin genuen Endika Abril txapelketa. Iparraldean oso talde onak daude eta maila handia dago, orokorrean. Final dezente lortu ditugu. Iparraldekoek gurean izan dezaketenez arzoa plazaren luzera da. 72 metro ditu gure plazak eta Iparraldean dauden plaza asko handiagoak dira, 90 eta 100 metro ingurukoak dauzkate. Horiek jokatzeko daukaten modua eta teknikak ezberdinak dira, eta ondorioz, Zubietan jokatzeko dugunean, irabazteko aukera dezente izaten ditugu.

Nondik datorkizu errebotearekiko zaletasuna?

Gurasoak ez dira inoiz ibili, baina aitak gustuko zuen. Sei urte nituela erregeek nire lehen zesta oparitu zidaten. Saltsan hasi ginen orduan, eta 15 urterekin jokatu nuen errebotoeko lehen partidua. Aurten 30 urte beteko dira ordutik.

Harrobia osatzen ari zarete edo gazte gutxi datoz atzetik?

Gazteak baditugu, baina udan parranda dela eta ez dela, konpromiso falta nabari da batzuetan. Gu ere gazteak izan ginen eta uzartzen genituen bi gauzak. Iparraldean ere gauza bera diote, gazteei kostatzen egiten zaiela kirola eta parranda uztartzea. Guk ere parranda egiten genuen, baina partida beti jokatzeko genuen eta



"15 urterekin jokatu nuen errebotoeko lehen partida. Aurten 30 urte beteko dira ordutik". ARGAZKIA: NOAUA

ahalik eta itxura onena ematen saiatzen ginen. Gazte batzuk ari zaizkigu sartzen taldean; ez dira asko, baina oraindik urte batzuetarako bageaude.

Uztailaren 31n, San Inazio Egunean, zubietarren arteko errebote partida jokatu duzue eguerdi partean.

Zubietarrak bakarrik izaten saiatzen gara bi taldeetan, baina zaila izaten da 10 zubietar elkartzea. Ni gaztea

"KONPROMISO FALTA NABARIA DA BATZUETAN. BAINA GAZTE BATZUK ARI ZAIZKIGU SARTZEN TALDEAN. ORAINDIK URTE BATZUETARAKO BAGAUDE"

nintzenez, zubietarrez osatutako lau talde izaten ginen jaietako partida jolasteko eta txapelketa txiki modukoa egiten genuen. Orain bi talde osatzeko hortxe-hortxe ibiltzen gara. Nahiz eta jaiak izan, batzuk oporretan daude eta iritsi ezinean ibiliko gara eta oiartzuarrei eta villabonatarrei esaten diegu etortzeko. Gu ere joaten gara euren partidetarara behar gaituztenean.

Joko Garbi gaztetxoaren partida ere izango da uztailaren 30ean. Zein ezberdintasun ditu kirol horrek errebotoarekin alderatuta?

Errebotean horma batetik bestera jokatzeko da, tenisa balitz bezala. Tenisean sarea dago eta errebotean ez. Joko Garbin hiruk hiruren aurka egiten dute eta errebotean bostek bosten aurka. Kantxa zaintzen lan gehiago izaten da Joko Garbin. Niri biak asko gustatzen zaizkit.

Zubietako jaiak

Uztailak 23, igandea

- 18:00 Eskupilota partidak: -Larrarte-Erasun -Mendizabal-Arrillaga. -Urmeneta-Aranguren -Goñi II-Artetxe.
- Sarrerak Bugatin, Irigoien, Illargin, Txiribogan, 673 381 544.

Uztailak 24, astelehena

- 18:00 Jaienas hasiera: txupinazoa eta buruhandiak.
- Jarraian, txoznen irekiera Elenek eta Maddik girotuta.
- 20:00 Bingoa.
- 21:00 Herri afaria Zubietako Pilota Elkartearen eskutik.
- Ondoren, Laiotz.

Uztailak 25, asteartea: Santio Eguna

- 9:00 Esnadeia, Donostiako Txistulari Bandaren eskutik.

- 11:00 Meza Nagusia.
- Ondoren, hamaiketako Joko Garbi elkartearen eskutik eta soka-dantza.
- 18:00 Herri kirolak: Harri jasotzen, Lur Errekondo eta Hodei Izeta. Pentatloia, Andoni eta Jakes Izeta.
- 19:30 Bertsolariak: Andoni Egaña, Oihana Iguaran, Iker Zubeldia, Iñigo Mantzisor "Mantxi". Gai-jartzailea: Zortzitan Bertso Eskola.

Uztailak 26, asteazkena: Oilasko Biltzaileen Eguna

- 06:00 Oilasko biltzaileen irteera, Ane eta Alazne trikitilariak alaituta.
- 14:30 Oilasko biltzaileen iritsiera.

Uztailak 28, ostirala: Umeen Eguna

- 10:00 Jolasen hasiera.
- 14:00 Umeen bazkaria: bakoitzak berea ekar dezala, eta gure kontu postrea eta sorpresa.

- 16:00 Jolasen jarraipena.
- Ondoren, txokolatada eta buruhandiak.
- Bukatzeko, diskofesta.

Uztailak 29, larunbata: Jubilatuen Eguna

- 12:00 Sagardo dastaketa eta pintxoak, Errebote plazan.
- 14:00 Jubilatuen bazkaria Joko Garbi elkartean.
- 15:00 Bazkari herrikoa.
- Ondoren, bingo musikatua.
- 17:30 Desafiyua.
- 19:00 Sardina eta piper jatea Ankoker-ek girotuta.
- 23:00 Kontzertuak: Deskontrol, Rukula.
- Ondoren, DJ Ertz txoznan.

Uztailak 30, igandea: Gaupasa Eguna

- 16:30 Mustxapelketa (16:00etan izen-ematea).
- 18:00 Herriko gaztetxoaren Joko Garbi erakustaldia, Errebote Plazan.
- Ondoren, buruhandiak.
- 20:00 Bingoa.

- 00:00 Kontzertuak: Asgarth, Gozategi, Dj Fantasia.

Uztailak 31, astelehena: San Inazio Eguna

- 10:00 Meza.
- 11:30 Zubietarren arteko errebote partida.
- 18:30 Herri Kirolak: Iparraldeko jokoak: Tubi eta Jon Loiola. Harri jasotzen: Mikel Urria.
- 20:00 Bingoa.
- 23:00 Herriko jaienas amaiera traka eta suziriek.

Oharrak:

- Jaietas gertalitezkeen ezbeharreran, Zubietako Jai Batzordeak ez du erantzukizunik.
- Musika egunero egongo da txosnetan gau eta egun.
- Jaietas ez da onartuko eraso sexista, homofobo edo arrazistatik.

Antolatzailea:

Zubietako Jai Batzordea.

Ondo pasa
Zubietako Herri Jaietan!

USURBILGO
LANBIDE
ESKOLA

CIFP USURBIL LHII

@UsurbilLHII

Ezagutu gure
ikastetxea
www.lhusurbil.eus

Abuztuaren 3tik 6ra, Urdaiagako festak

Abuztuak 3, osteguna

- 10:00 Txupinazoa.
- 11:00 Meza.
- Jarraian, dantzariak eta patxintxi banaketa.
- Jarraian, buruhandiak.
- 18:30 Helduen jolasak.
- Gaualdean, Akerra gaztetxea irekita.

Abuztuak 4, ostirala

- 15:30 Museko izen-ematea.
- 16:00 Musa.
- Amaitzean, buruhandiak.
- 20:00 Patata tortilla txapelketa.
- 21:00 Herri afaria (bakoitzak berea, batzordeak edaria eta postrea).
- 23:00 Bertsolariak.
- 00:30 Gabezinekin erromeria.

Abuztuak 5, larunbata

- 11:30 Umeen ekintzak.
- 13:30 Umeen bazkaria, jai batzordekoen eskutik.



Abuztuaren 3an patxintxiak banatu ohi dituzte. Eguerdiko meza eta gero izango da. ARGAZKIA: NOAUA

- 16:00 Umeentzako tailerrak eta buruhandiak.
- 21:00 Afaria. Txartela aldeztatik erosita.
- Jarraian, Ameba eta Kristonak taldeekin kontzertua.

- Amaitzean, jolasak.

Abuztuak 6, igandea

- 11:00 Ibilaldi neurtua.
- Ibilaldi neurtuko partaideak etorri ahala, hamaiketakoa

- (salgai). Partaide guztiak itzultzean, sari-banaketa.
- Jaien amaiera.

Antolatzaileak:

San Estebango Jai Batzordea.



ONDO PASA
SAN
ESTEBANETANI!

URTINEA

**Jantzi kolorez zure etxe,
balkoi zein lorategia!**

Era guztietako aukerak oparitzeko:
garaiko loreak, frutarbolak, loreontziak,
lore-sortak...

San Esteban Auzoa, Usurbil - Tel: 943 36 22 55



Pertsonak laguntzen ditugu

Mentalia Usurbil Zentroa

Mentalia Usurbilen ongizatea, autonomia pertsonala eta gizarteratzea dugu helburu pertsonen bizitza proiektua eraikitzen laguntzen dugularik. Tratamendu pertsonaliza tuak eta jakintza-alor anitzeko izatea duen arreta eskeintzen dugu. Zuen zorientasuna gurea delako.

- Ongizatea
- Autonomia pertsonala
- Gizarteratzea

Helbidea
C/ Urdaiaga, 48
20170 Usurbil (Guipúzcoa)

943 36 11 24
mentalisalud.es

Mentalia salud

Osasun mentaleko desoreken tratamenduan espezializatutako zentroak

Atxegaldeko jaiak, abuztuaren hondarrean

Zubietako eta Urdaigako jaien lekukoa hartuko du askoren-tzat, herrira itzuli eta oporren amaiera izango den abuztuko azken asteburuan. Atxegaldeko festei buruz ari gara. Abuztuaren 25ean hasi eta 48 orduko etengabeko parranda giroan murgilduko da auzoa, hilaren 27ra arte.

Egitaraua, aurrerago

Aurreko urteen ildo beretik, ez dira faltako haurrei zuzenduriko ekimenak, kontzertu gauak, ibilbide luzea duten lehiaketak... Auzotar nahiz bisitariarentzat ingurua biziberrituko duen festen asteburua izango du Atxegaldek beste urte batez, datorren hilabete amaieran. Egitarau zehatza, datozen asteotan plazaratuko dugu online, noaua.eus atarian.



Haurrei zuzenduriko ekimenak ez dira faltako Atxegaldeko jaietan. NOAUA!

3 MODU DITUZU BAZKIDE EGITEKO:



Beheko inprimakia bete eta bulegora ekarriz



Webgunearen bidez noaua.eus/bazkidetu



Telefonoz 943 360 321

Izena

Abizenak

Nortasun agiria

Helbidea

Herria

Posta kodea

Telefonoa

Posta elektronikoa

Kontu zenbakia (IBAN)

Bazkidetza mota Arrunta (40 €) <30 urte (25 €)

Jaiotze data

noaua.eus



"Fisikoki hutsik amaitzen dut, baina emozionalki beteta"

MIKEL OTAEGI TRIATLOILARIA

Triatloi probak gogorrek direla aski zabaldua dagoen ustea da gure gizartean, eta zer esanik ez *ultraman* probak. Horietako hainbat egindakoa da Mikel Otaegi usurbildar kirolaria.

Triatloia oso gogorra da. Denbora eta energia asko eskatzen du. Astero, zenbatetan entrenatzen duzu batzaz beste?

Hasi nintzenez, gogoaren arabera ibiltzen nintzen, baina hobetuz joan ahala, entrenatzaile batekin hasi nintzen entrenamenduak pixka bat antolatzeko. Dietista batekin ere aritu nintzen hobetzeko. Azken urteetan nire kirolarekiko ikuspuntua aldatuz joan da eta denbora librea aprobetxatzen dut entrenatzeko. Gogoaren eta eguraldiaren arabera erabakitzen dut zer egin orain. Bestela ez naiz libre sentitzen.

Igeriketan, korrika eta bizikleta gainean. Triatleta batek hiru jarduera horiek osatu behar izaten ditu. Zein da erosoena egiten zaizuna eta zein da hobe beharko zenukeena?

Lehen bizikleta izango zela esango nuke, baina denbora asko kentzen du. Astean zehar lanetik atera eta bizikletan ibiltzeak pereza ematen dit askotan. Beraz, korrika esango nuke. Denbora gutxiago kentzen dit eta sinpleago egiten zait. Bizikleta lotuagoa da eta lanetik ateratzean jartzen banaiz 4 edo 5 orduz pedalei ematen, eguna horretan beste ezertan ez dut pasatzen. Korrika Erribera aldera joaten naiz edo mendira eta ordu eta gutxiarekin amai dezaket. Ez zait hain astuna egiten. Gutxien igeri-



"Ultraman asko egin ditut. Erresistentzia handiko probak asko gustatzen zaizkit".

keta betidanik, hori ez da aldatu.

Zu ari zaren mailan aritzeko, asko zaindu beharra al dago? Txapelketa garaian behintzat, parrandarako tarte gutxi izango duzue.

Sekula ez naiz oso parrandazalea izan. Beraz, ez da inolako arazoa.

Beste kirol jarduera batzuetan ere arituko zinen txikitán. Noiz

egin zenuen triatloia aldeko apustua? Noiz hasi zinen triatloia serio hartzen?

Umetan pilota ibiltzen nintzen. Aitonari asko gustatzen zitzaion eta etxean asko ikus-

"TRIATLOIAN, IGERIKETA DA GUTXIEN GUSTUKO DUDAN ARIKETA"

ten genuen. Ondoren, Ping-pong probatu nuen. Udarregi Ikastolan jolasgaraietan ibiltzen ginen eta gustuko genuenez, entrenatzaile bat jarri ziguten. Lasarten jarraitu genuen gero, eta Gipuzkoako Federazioarekin Donostian ibiltzen ginen. Hortik aurrera futboleko ibiltzen nintzen Usurbilen, baina ez ninduen erabat betetzen. Uda batean, Iñaki Añorgarekin hizketan, proposatu zidan duatloi batean partehartzea. Herrian triatloian beste hiru bat pertsona ibiltzen ziren eta Baxurde Txiki taldea sortu genuen 2008an. Ordutik aurrera horretan gabilta.

Zein da orain arte lortu duzun balentriarik handiena?

Azken urteetan egin ditudan probak. Ultraman asko egin ditut eta erresistentzia handiko probak asko gustatzen zaizkit, orokorrean. Jarritako erronka horiei aurre egitea gustatzen zait. Fisikoki hutsik amaitzen dut, baina emozionalki beteta. Hiru egunetan egiten diren probak dira, egunean 10 bat orduz etengabe kirola egiten: lehen egunean 10km igeri eta 150km bizikletan, bigarren egunean 280km bizikletan eta hirugarren egunean bi maratoni korrika. Bukaeran oso pozik amaitzen dut. Bakoitzak bere taldea eramaten du berekin bidean laguntzeko eta horrek aukera ematen du nahi duzunarekin partekatzeke esperientzia. Ez da gauza bera bolondresekin aritzea edota zure guraso, lagun edo nekalogunaren laguntza izatea. Bolondresari ere eskertzen diozu bere lana, baina emozionalki beste aukera osoagoa da.

Epe erdira, zein da zure helburua? Zein da begiz jota duzun marka edo txapelketa?

Markarik ez daukat buruan. Aurten lau Ultramanetan eman dut izena eta oso jarraian izango dira. Orain arte

→ urtean hiru egiten nituen, baina denbora tarte handiekin euren artean. Gorputzari atseden hartzeko denbora ematen nion horrela. Aurten ultraman proba bat izan dut uztaila hasieran Madrilen eta bost egun beranduago Ehunmilak egiteko eman nuen izena. Erronka zen ikustea ea biak egiteko gai naizen. Irailen beste Ultraman bat daukat, baina dena jarraian izango da. Hau da, lo egin gabe 36 orduz jarraian egin beharreko proba bat da. Erokeria ematen du, baina gorputza aktibo dagoen bitartean ez duzu lorik hartzen. Gorputzak uste baino gehiago hel diezaioke horrelako egoera bati. Lasai egiten ditut probak, ez daukat inorri ezer erakutsi beharrik eta gozatu egiten dut.

Lehiakortasun handia dago triatloio txapelketetan ala, alderantziz, lagun giroan lehiatzen al duzue?

Bakoitzak bere helburu propioak ditu Ultraman gisako probetan. Hau da, norbaitekin lehian ari bazara erlojuarekin izango da edo zeure gaitasunekin. Gainontzekoek ere euren erronkak dituzte eta bakoitza bereak lortzen saiatzen da ondokoak zer egiten duen kontuan izan gabe. Ez gara arerioak, bide-lagunak baizik. Giro erabat lasaia da eta horren proba luzeetan atseden hartzeko daukagun denbora besteekin partekatzen dugu. Jende asko ezagutzeko aukera eman dit eta harreman sendoak egin ditut. Bestelako txapelketetan, amaitzen duzunean, erlojuari begiratzen diozu eta etxera itzultzen zara.

Zu aritzen zaren mailan aritzeko gaitasun bereziak behar dira. Baina prestaketa lana ere oso inportantea izango da. Zure ibilbidean, zer nolako garrantzia izan dute entrenatzaileek? Niri entrenatzaileek erakutsi didate noiz deskantsatu eta



"Distantzia luzeko probak lasai egiten ditut. Ez daukat inorri ezer erakutsi beharrik eta gozatu egiten dut".

nola planifikatu entrenamenduak. Haiek esandakoa kontuan hartzen dut, baina gorputzaldien kontrola norberak dauka. Puntu bateraino jarraitu izan ditut entrenatzaileen jarraibideak. Lau ordu entrenatzea tokatzen bazitzaidan, baina nire buruak eta gorputzak ezezkoa bazioten, ezetz da. Gogorik gabe egiteak erre egiten zaitu eta nazkatu. Triatloia ez da nire lanbidea, hobby bat da eta ez zait ona iruditzen horren serio aritzea. Izan ditut obsesio momentu horiek eta motibazioa galarazi zidaten. Neurri batean horregatik aldatu dut nire ikuspuntua.

Usurbil bezalako herri batek badu entrenatzeko azpiegitura nahikorik?

Faltan botatzen dudana atletismo pistak izatea da. Azken urte hauetan pilotarako grina izugarria izan da frontoian, eskubaloiak ere hainbat jende erakarri du kiroldegira eta

"AZPIEGITURA MAILAN, ATLETISMO PISTAK BOTATZEN DITUT FALTAN USURBILEN"

futboleko ibil zaitezke Haranen. Atletismorako ez dago azpiegitura bereziturik. Ez dakit azpiegitura faltaren ondorioz jendea ez den atletismoan hasi edo alderantziz izan den. Nik uste pistek jendea erakarriko luketela. Pistak ez dira beharrezkoak korrika egiteko, Usurbilen mila bide daukagu korrika aritzeko. Gauzez entrenatu nahi duenarentzat izan daiteke oso interesgarria pista izatea arriskuak ekiditeko: autorik ez, nahikoa argi, leku txikiagoa da...

Eta etorkizunean, lehiatik erretiratzeko zaren, kirol munduari lotuta ikusten duzue zure burua?

Kirolean jarraituko dut beti. Txapelketarik gabe bizi naiteke inolako arazorik gabe, baina kirolik gabe ez. Geroz eta txapelketa gutxiagotan hartzen dut parte, baina gogorrak dira. Denetariko probetan parte hartzen dut

"KIROLAK LASAITU EGITEN NAU, ETA BEHAR DUT EMOZIONALKI OREKATUTA EGOTEKO"

eta, horrez gain, neure buruari erronkak jartzen dizkiot txapelketetatik kanpo. Ez dago dortsala jarri beharrik erronkak jartzeko. Beraz, kirolean jarraituko dut beti. Asko laguntzen dit lanetik deskonektatzeko eta bizitzan ikuspuntua aldatzeko arazoaren aurrean. Kirolak lasaitu egiten nau eta behar dut emozionalki orekatuta egoteko.

Laburrean

Zenbaki bat: 10.

Kolore bat: Urdina.

Kirolari bat: Nire aitona. 82 urte arte bizikletan ibili zen.

Lasterketa bat: Infinity Man (ultraman).

Film bat: '60 segundos' (Dominic Sena).

Liburu bat: Albisteak irakurtzen ditut.

Abesti bat: Amets (Gari).

Sare sozial gustukoena?: Facebook eta Instagram.

Usurbilgo txoko bat: Usurbilgo erribera.

Santixabelak ala Sargardo Eguna? Santixabelak.

Oporretarako toki bat: Pirinioak.



Hainbat herri plataformek osasungintza publikoa babesteko uztailaren 15ean Donostian egin zuten elkarretaratzea. NOAUA!

Osasungintza publiko duinaren defentsan

Jendurreko arreta ordutegian murrizketak edota osasun-etxeen itxierak izaten ari dira uda partean. Sendagileak Lehen Arreta zerbitzuetan kentzen ari direla salatu dute, gainera, hainbat herri plataformek.

Osasungintza publikoaren suntsiketa salatu eta etenik gabe gehitzen doazen murrizketak etetea eskatu zuten. Guztion Osakidetza babestu eta indartzeko eskaria egin zioten Eusko Jaurlaritzari, uztailaren 15ean Donostiako Amara Berriko anbulatorio atarian egin zuten elkarretaratzean. Eskualdeko hainbat herri plataforma batu zituen hitzorduak; Donostialdea eta Tolosaldea Osasun Publikoaren Alde edota Olatu Txuria herri ekimenak.

Guztien pankartetan osasungintza publikoa defendatzeko "Murrizketarik ez! Ez udan, ez neguan!" gisako aldarriak. Hain zuzen, oso aspalditik datozen murrizketen bidean sakondu dute urte garai honetan. Ekaina amaieran, Osakidetzak zenbait osa-

sun-etxe itxi eta beste zenbaitetako itxiera ordua aurreratzea erabaki zuen; Usurbildik gertuen dagoen Lasarte-Oriako anbulatorioa 17:00etara (orain arte 20:00etan ixten zuten), uztailaren 17an hasi eta irailaren 15era arte gutxienez.

Arretaren kaskartzea

Ordutegiez gain, lan taldeak ere murriztea erabaki du, asteburuko mobilizazioan salatu zuten. Ondorioa argia da, plataformon esanetan; "arretaren kalitatea kaskartu egin da". Eta hori hala izaten ari

"SENDAGILEAK BEHARREAN ERIZAINAK JARTZEN DITUZTE"

delat argitzeko, zenbait adibide nabarmendu zituzten Donostiako mobilizazioan. "Esate baterako, Ondarreta osasun zentroan arratsaldeko txandako zortzi sendagiletik bi ari dira lanean. Beste adibide bat; ospitaletik kanpo, Donostialdeko larrialdi zerbitzuetan (Zarautzen, Donostian, Hernanin eta Oreretan), sendagile jardunaldi asko, 420 inguru bete gabe geratu dira".

Erizainak medikuen orde

Sendagile kopurua nabarmen murriztuta, argi diote zer egi-

"ERIZAINOK EZIN DUGU SENDAGILE BATEN LANA GARATU"

ten ari diren. "Kasu hauetan, kudeatzaileek sendagileak jarri beharrean erizainak ezarzen dituzte". Baina noski, eta hemen dator egoera are gehiago larriagotzen ari den kontua; "guk erizainok ezin dugula sendagile baten lana garatu legalki noski". Ordezkapen hauek izaten ari dira, besteak beste, aipatu zuten moduan, eskualde honetan bertan. Adibidez, usurbildarrek larrialdi egoeretan, ospitalera joateko aukera izateaz gain, Hernaniko etengabeko lehen arreta zerbitzura jo dezakete. Baina, behin baino gehiagotan nabarmendu zuten moduan, guneotan eta baita anbulatorioetan ere, "Lehen Arretan eta etengabeko arreta guneetan medikuak kentzen ari dira" eta haien partez, "erizainak jartzen ari dira", jakinik haiek ezin dutela sendagileei dagoen lana egin.

Honenbestez, lan taldeetan ez soilik murrizketarik ez egitea, herritarrontzako behar adina mediku izatea exijitu zuten. Medikua falta dagoenik gezurtatu zuten. Honenbestez, behar duten profesionalek dagokien atsedena hartu eta beharrezko ordezkari sendagile guztiak izatea eskatu zuten, eta noski, herritarrek

jaso beharreko arreta guztiz aurrez aurrekoa, presentziala izatea. Hori da "denok nahi duguna". Medikuek ez, baliabideen kudeaketa on bat falta dela salatu zuten. Osasun zerbitzu publiko duin, kalitatezkoa, unibertsala eta euskalduna aldarrikatu zuten.

"Mesedez, murrizketarik ez!"

Mobilizazioan zehar, osasungintza publikoko profesional bezain gaitzak, herritarrek ere hartu zuten hitza, aski dela esateko. "Ezin da gure eta guztion diruarekin horrelako kudeaketa kaxkarra, negargarria eta eskasa egin. Mesedez, murrizketarik ez!". Bihotzez eskertu nahi izan zituen osasungintza publikoko langileak, "nirekin izan duten arreta, gogo hori ni zaintzeko, ni sendatzeko". Egunetik egunera, osasun sistema publikoaren egoera okerrera nola egiten ari den ikusten ari dela adierazi zuen, profesionalak "geroz eta lanpetuago, benetan estu, lana nahi duten moduan, ondo egiteko". Horregatik, zioenez, "estimatzen dut arreta eta zaintza hori eman didaten bezala, estimatzen diet zutik jartzea" Osakidetza egun bizi duen egoera salatzen.

Planifikazio falta, aspaldikoa

Horretan dihardute hain zuzen, han-hemenka sortzen doazen herri plataformek; tartean eskualde honetakoak, Donostialdea Osasun Publikoaren Alde izenekoak. Uda-ko iragarri dituzten murrizketak luzatuko ote diren galdetu diegu bilgune honetako kideei; tartean bada lanean den erizain bat. "Auskalo! Baina halakoak geroz eta maizago gertatzen dira", erantzun digu. Argi diote,



Donostialdea Osasun Publikoaren Alde plataformako kideak. NOAUA!

"agintariek egokitzapena deitzen diote guk murrizketa deitzen diogunari". Oso atzetik datorrena gainera. "2008tik dator, orduetik planifikazio falta izugarria da. Aitzakia merkea da orain gertatzen ari dena langileei edo pandemiari egotzea". Ondorioa argia da haien esanetan; osasungintza publikoak prestigioa galdu du, "publikoaren alde egon arren, herritarrek geroz eta gehiago doaz pribatura". Hautu hau ez dira kasualitatez egiten ari, eta ez soilik haiek, baita Osakidetza profesionalak ere. Osasungintza publikoan lanean segitzen dutenen artean, aldiz, kezka eta tentsioa, ez dakitelako lanera doazenean arau-

"2008. URTETIK PLANIFIKAZIO FALTA IZUGARRIA DA"

diak finkatzen duen beharrezko lan taldea osatua egongo den. "Presioa handia da, estresatuta eta gaizki goaz lanera, horrela ezin da lan egin".

"Osakidetza denona da"

Murrizketetatik haratago, Osakidetza lehen arreta zerbitzuak aitortza falta nabaria duela diote. Horregatik, ezinbestekotzat jotzen dute osasungintza publikoaren oinarria indartzea. "Osakidetza denona da, gure zerbitzua, eskubidea. Pertsona askok borrokatu dute guk halako zerbitzua izateko", eta orain, diotenez, "kolokan jartzea arriskutsua da". Agintariei ahotan darabilten "hitz poli-

"PRESIOA HANDIA DA, ESTRESATUTA ETA GAIZKI GOAZ LANERA"

tetatik" ekintzetara igarotzea eskatzen diete, "arduradunen aldetik dagoen utzikeria" albo batera uztea.

Barne berrantolaketa berria beharrezkotzat jotzen dute, "profesionalak falta dira bai, baina agian beste formakuntza eta planifikazioa baita, profesional bakoitzak berari dagokion lana ahalik eta ondoen egin dezan. Lehen medikuarengana heltzen ziren hainbat lanek ez dute iritsi behar, burokrasia ere iristen baita haiengana".

"Denon esku dago zaintzea"

Mingarria deritzote pandemia garaitik entzuten dutena, telefonoz baino ez dutela artatzen, ambulatorioak hutsik egonik ez dutela presentzialki lanik egiten... Penagarritzat jotzen dute, sarritan lehen arretan izaten den profesional aldaketa eta gabeziagatik eta denbora faltagatik, nola garai bateko artatze modua desagertzen doan, "persona bakoitza urtaro guztietan, urtean zehar artatzea" alegia. Azkenean, etengabeko profesional aldaketek galarazi egin du garai bateko profesional eta herritarren artean zegoen, gertuko eta konfiantzazko hartuemana. "Denon esku dago hori zaintzea", diote.

Horrek guztiak sustatu nahi duten kalitatezko arreta duin, unibertsal, parekide eta euskalduna eskaintzea oztopatzen duela nabarmentzen dute. Horretan borrokan dihardute eta ezinbestekotzat jotzen dute denok borroka horretara batzea. "Denon esku dago hori guztia zaintzea, ez bakarrik langileen esku. Herritarrok ere gure ardura dugu hori defendatzeko". Argi diote, "denok batera mugitu behar dugu".

Uraitz, s.l.
Igeltseritza
Orokorra

693 059 392
uraitz@uraitz.com USURBIL

ZENDOIA
ENE taberna
Kale Nagusia 35, Usurbil

USURBIL DÖNER KEBAB

843 675 265
603 609 183

USURBIL DÖNER KEBAB USURBIL_DK
Borda Berri Kalea, 5

943 361182
EROSKI / city
kale Nagusia 10, USURBIL



Itziar Aizpurua eta Prexen Altuna, ehun urte bete dituen Zendoienearen atarian. NOAUA!

Mendeurrena bete du, herriarentzat zabalik izan den Zendoieneak

ITZIAR AIZPURUA ETA PREXEN ALTUNA

Ehun urte bete ditu Zendoieneak. Herriko erreferentzia gune nagusietakoaren mendeurrenean, bertako familia ezaguneko bi kiderekin bildu da NOAUA!

Etxeko atea beti zabalik. Halaxe izan du Zendoieneak azken mende honetan. Ehun urte bete ditu aurkezpen gutxi behar duen eraikinak. Aizpurua familiaren bizitoki eta baita lantoki ere beti. Egun bezala, taberna eta okindegi zituen iragan mendean zehar ere, beti herria zerbitzatzeko prest. Hamaika istorio eta bizipen dituzte lerrootan hitza hartu duten bi senideek; Itziar Aizpurua eta Prexen Altunak.

Erabilera anitzeko furgoneta
Herriko okindegi bakarra zen haiena garai hartan. "Ogia gaez egiten zen" egurrezko lehen labe hartan. Egunean zehar mantentzen zuen ten-

peratura altua ederki baliatzen zuten "gaztainak, sagarrak erretzeko" edota "bataio eta komunioak izaten zirenean arkumeak erretzeko" hainbat herritarren eskariz. Ezagunak dira hain zuzen, ez soilik herri erdigunean, baita baserrietan ere. Ogia herriko azken txokoraino banatzeko eskaini duten zerbitzua biziki estimatu izan dute herri honetako belaunaldi ezberdinek. "Enkarguak asko izaten ziren", eta oroitzen dutenez, ez soilik ogia banatzeko Kaxkoan, Urdaiagan, Txokoalden edota Aginagatik Ortzaika ingururaino. Hainbat etxetarako bidaia bestelako beharrezko erosketak eramateko ere ba-

liatzen zuten. Furgoneta bera larrialdi zerbitzuetarako ere behar izaten zuten. Gogoan izan, garai hartan orain ez bezala, ibilgailu gutxi izaten zen eta behar izan zuen bat

"FURGONETATIK OTARRAK ATERA, OGI APURRAK KENDU ETA BAT BAINO GEHIAGO ERAMANDAKOAK DIRA DONOSTIAKO LARRIALDI ZERBITZUETARA"

baino gehiago "medikuetara urgentziara eramaten zuten", oroitu ditu Itziarrek. "Aitari deitu, furgonetatik otarrak atera, ogi apurra erratzarekin kendu, koltxoien bat bota eta bat baino gehiago eramandakoak dira Donostiako larrialdi zerbitzuetara".

Herriko garai hartako medikuak "mini" bat zuela ere gogorarazi digute, baina ezin behar zenean herriko txoko guztietara iritsi. "Bajua oso behean zuen. Horregatik, medikua hona etorri eta furgoneta eskatzen zion aitari".

Garraio zerbitzuak soilik ez, telefonogunea ere bazen Zendoienea. Hainbat herritarrek deitu edota dei bidezko enkarguak ere jasotzen zituzten.

"Ez al dugu etxera joan behar!"

Okindegi ondoan, etxeko bigarren lantokia; taberna. Garai hartako herriko bakarrerenetarikoa, errepide bazterrean gainera. Egungo N634 bidea bertatik igarotzen zen. Geltoki ia derrigortua zen, besteak beste, Michelin lanean aritu eta handik bueltan zetozenentzat. Tabernak beti ateak zabalik, baita aurpegi ezagunentzat ere. Oriok Kontxako bandera irabazten zuenean ospakizunerako lehen geltokia bertan egiten zuten. "Ama Orio zale amorratua zen. Irabazten bazuen sagardoa eta xanpaina prest izaten zuen", gogorarazi digu bere alaba Prexenek.

Kaxiano ezaguna ere bisitan izaten zuten Altunak oroitarazi digunez. Zorigaitzoko istripu batean zaletasuna zuen ehizean itsu geratu zen bere aita. Ikusmena galdu bai, baina gainerako zentzumenak ondo garatu zituela oroitzen du bere alaba Prexenek. "Etorritzen ziren denak ezagutzen zituen". Tartean, Kaxiano bera. Biak akordeoia jotzen aritzen ziren Zendoian giro ederrean.

Okindegitik bezala, tabernatik ere zerbitzua eman die- te behar izan zutenei; jaietan

→ udal ordezkariet hamai-ketakorako, hauteskundeetako mahaikideei edota garai hartako La Sallekoei ere urteko bazkaria sukaldatzen zien Prexenen amak. Berak gura-soengandik jaso zuen negozio honen ardura. Nortasun handiko emakumea Prexenek oroitu digunez. "Ez al dugu etxera joan behar! zioenean, tabernan zirenak orduan denak mugiarazten zituen". Tindategi zerbitzua ere martxan jarri zuen emakumea ezaguna zen inguruotan. "Taberna bateko emakumea izanik, jende asko ezagutzen zuen". Mus jokalaria bikaina, ahizpen antzera maila bera erakusten zuen baita sukaldaritzan ere. "Oso langilea, lan asko egin zuten isil-isilik".

Matriarkatuak zuen nagusitasunaz aipatu digute, hainbat oroitzapenen bidez. Bai Zendoiaeneko egunerokotasunean, baita erabaki txikienetan ere. Umoretsu kontatu digu Itziarrek, eskolatik txangoren bat zutenean "baimena beti amari eskatzen genion, inoiz ez zitzaigun bururatzen aitari eskatzea. Amak baiezkua ematen zuen, aitak ere hala esango zuela ulertuzat jotzen zen".

"Egun osoa jendartean"

Orduko herriak zerikusi gutxi zuen egungoarekin. "Frontoi atze horretan amaitzen zen Kaxkoa". Herrikide gutxiago noski, "denok elkar ezagutzen ginen". Egungoa baino bizi-modu lasaiagoa zuten, baina orduko herri bizitzaren erdigunean kokatua zegoen Zendoiaenea, egungoarekin zerikusi gutxi zuen Kale Nagusian. "Okindegia eta taberna egun osoak zabalik izaten ziren. Bizi ere hemen bizitzen ginen, egun

osoa jendartean". Hortik, erai-ki duten harreman sare zabalak. "Jende askorekin izaten segitzen dugu harremana eta gu ere ez gara atzean geratzen. Polita iruditzen zait", nabarmendu digu Prexenek.

Urteetan erakutsitako esku-zabaltasuna eta laguntzeko prestasuna bueltan jaso izan dute noski betidanik. "Baserrri askotan oso esker onekoak ziren. Enkarguak eramateagatik, txerria hiltzen bazuten odolkiak" edota baratzetan hazitako etxeko beste hainbat produktu jasotzen zituzten ordainetan. Baina aipatu moduan, bereziki estimatzen dutena eman dien harreman sarea da.

Hitz egiten hasita, gogorazi digute herri aldizkari honen izena ze erabilia zen. "Harategira erosketak egitera joan behar eta markesaneko petrila gizonenez betea eta Noaua! entzun behar izaten genuen".

Laguntzen segitzeko deia

Belaunaldi bat baino gehiagoren bizileku izan da Zendoiaenea, eta bertan bizi izan diren sendi gehiagorena baita. Aurrera begira jarrita hemen Itziarrek erantzun diguna: "ahalik eta ondoen bizi daitezela, aukera badute haien artean elkar lagundu daitezela eta baita beharrez ikusten dutena ere". Zendoiaeneko eskuzabaltasunaren eta elkartasunaren haria eten ez dadin.

"OSO LANGILEAK ZIREN, LAN ASKO EGITEN ZUTEN ISIL-ISILIK"



Uztailaren 4ko suteak ke handia eragin zuen. ARGAZKIA, ARTXIBOKOIA.

Erraustegia, aurretratamendurik gabe lanean

Ekainaren 20az geroztik derrigorrezkoa den alde aurreko tratamendurik gabe hondakinak erraustegira bidaltzen ari direla salatu du GuraSOSe.

GuraSOSen esanetan, GHK-k ez ditu betetzen "Gipuzkoako Batzar Nagusiek onartutako ingurumen-baimena eta hondakinak kudeatzeko plana". Testuinguru horretan gertatu zen hain zuzen, uztailaren 4an erraustegian izandako sutea.

"Airea kutsatzeko arrisku handiagoa dago"

Aipatu ingurumen baimena ez betetzeak kutsadura eragin nabarmena duela ohartarazi du GuraSOSe. "Bi ondorio garrantzitsu ditu. Alde batetik, erraustegiaren lubakira material oso hezea eramaten ari dira, eta proiektuan aurreikusitako bako lixibiatu ugari sortuko gainera; izan ere, gaur egun, duela urtebete, hain zuzen ere, isuri eta isuri kutsatzaile handiak antzeman ziren hobi horretatik. Bestalde, erraustu beharreko

hondakinaren hezetasunak labeen funtzionamenduaren tenperatura jaistea eragiten du eta, ondorioz, airea kutsatzeko arrisku handiagoa dago. Gainera, GHKPOa (Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudeatzeko Plan Orokorra) ez betetzea dakar, masan bildutako etxeko hondakinen aurretratamendu mekaniko biologikoa aurreikusitako baitu, eta soilik bigarren mailako etxeko hondakinen errausketa, hau da, aurretratamendua jaso dutenena".

Horren aurrean, "GuraSOSe- tik uste dugu erraustegiaren gardentasun falta, funtzionamendu irregularrak eta etengabeko gorabeherak hainbestearaino iritsi direla, eta beharrezkoa dagertuko udalek gutxienez ekimen politikoak hartzea gardentasuna eta kontrol demokratikoa bermatzeko, keza hutsetik harago joan daitezela".

URDAINTZI S.L.
Eraikuntzak
649 43 54 75
943 36 72 64
EIRA KUNTZAK-OBRAK-ERREFORMAK

Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!
USURBILGO HORTZ KLINIKA
ANTTON BERNAL RUIZ DE OÑA
EKAITZ GARMENDIA MERINO RPS: 28/22
943 37 08 78 NAGUSIA 10, 1 C4 USURBIL

ARANKA
BERRIKUNTZAK
· Fatxaden estaldurak · Estalkien berritatzak
· Barruko berrikuntzak · Gremioen koordinaketa
· Igeltseritza orokorra
606 37 21 05 USURBIL



Jabier Iraola Gabilondok idatzi du liburua eta Igeldo Herri Kontseiluak eman du argitara. ARGAZKIA: DONOSTIA KULTURA

Usurbilgo arrastoa 'Igeldoko historia eta istorioak' liburuan

Jabier Iraola Gabilondok Igeldoko baserrien inguruko argazki liburua plazaratu du. Usurbilgo mugan denez, bertako arrastoa ere nabaria da argitalpenean barrena.

Duela bost bat urte hasi zen Jabier Iraola baserrien argazki zaharrak biltzen. Igeldoko baserriak galtzen ari zirela ikusita, argazkiak jasotzen hasi zen etxez etxe. Etxeetako argazkiez gain, familia-argazkiak eta aspaldiko usadioei buruzkoak ere eskuratu zituen. "Ahozko ondarean oinarritutako liburua da, igeldoarren kontatutako bizipen eta istorioak baitira liburuaren ardatza", Donostia Kulturaren web orrian irakurri dugunez.

'Igeldoko historia eta istorioak' liburuak atal ugari ditu.


Baserriena da oparoena. Igeldoko inguruko baserrietan ere erreparatu dute eta hor agertzen dira Usurbilgo lehen erreferentziak. Egioleta Handi, Egioleta Txiki eta Egioleta Berri. Bada beste atal bat, 'Galdutako baserriak' izenekoak, eta hortxe batu dituzte Artikula Haundi eta Artikula Txikiaren ingurukoak.

Ondarearen baitan, Igeldoko harrobiak, iturriak, karobiak, gotorlekuak eta Igeldoko igelaren putzuak zerrendatu dituzte. Horiek denak mapa batean markatu dituzte.

Bestelako ondarea ere bildu dute liburuan. Ahoz aho transmititzen dena. Izan ere, herriarren azalpenen bitartez, igeldoarren bizimodua islatzen saiatu dira. Ohiturak, festak, kirol jarduerak... Bestelako kontuek ere atal propioa dute: eliza eta elizkizunen ingurukoak, gerra eta soldaduskari buruzkoak...

Argazkiak zein igeldoarren azalpenak biltzeko ahaleginean, Joseba Iraola Gabilondok lankide asko izan ditu alboan. Liburua Igeldo Herri Kontseiluak plazaratu du eta Donostia Kulturaren babesa jasotzen du.

**JABIER IRAOLAK
IGELDOARREN
AZALPENAK ETA
ARGAZKIAK BILDU
DITU LIBURU
MARDUL BATEAN**



'Igeldoko historia eta istorioak'

Ahozko ondarean oinarritutako liburua da hau, igeldoarren kontatutako bizipenak eta istorioak baitira liburuaren ardatza.

- Egilea: Jabier Iraola Gabilondo.
- 560 orrialde.
- 119 etxe eta baserri.
- 1.000 argazki baino gehiago.
- Gaiak: Igeldoko baserriak eta etxeak, astoak eta igeldoarren, arroak, eliza eta elizkizunak, eskola, gerra eta soldaduska, Gudamendi, harrobiak, iturriak, jaiak eta jaigiroa, kirolak, lana eta bizimodua, ondarea, plaza.
- Argitaratzailea: Igeldoko Herri Kontseilua.
- Babeslea: Donostia Kultura.
- Usurbilgo Laurok eta Lizardi dendetan eskuragarri.

JUANTXO
BURDINDEGIA
Zubiarrenea 8, USURBIL
943 37 00 08

Zuen publizitatea hemen
☎ 943 360 321
publizitatea@noaua.eus

Otar-Goxo
Elizkizunak
Zubiarrenea 2, 943 36 55 81

MERKATU TXIKIA

ETXEBIZITZAK

ALOKAIRUAN

Lanerako gela bat eskaintzen da, zerbizuetarako primeran: fisioterapia, masajista, psikologia etab. egokitua. Kokapena eta sarbide ona. 2020an berritua. 670 410 273.

Mutil batentzako pisu bila nabil. 622 925 562.

Ekainaren 26tik abuztuaren 26ra bitziteko moduan dagoen etxe bat alokatu nahiko nuke. Harremanetarako: 636 711 514.

SALGAI

Izar-etxe beheko etxea salgai. 85 metro koadro inguru eta txokoa ditu. Informazio gehiago Elizalde inbiliarian 943 35 35 34

MOTORRA

SALMENTA, GARAJEAK

Garaje itxia salgai herri sarreran. 646 601 947 (18:00etatik aurrera deitu).

IRAGARKIA JARTZEKO:

NOAUA!KO BULEGOTIK PASA

ERREDAKZIOA@NOAUA.EUS

943 360 321

Munalurra 4 zenbakian lokal bat daukagu alokatzeko. Telefono zenbakia: 652 765 583.

LANPOSTUAK

LAN ESKAINTZAK

Astean pare bat arratsaldez adineko emakume bat zaintzeko pertsona baten bila nabil. 653 018 132.

Datorren ikasturtean haurrak eskolatik jaso eta etxera ekartzeko pertsona baten bila gabiltza. 12:00-14:00, astelehenetik ostiralera. Ko-

- Asteleheneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
- Iragarki berriak sartu ahala, zaharrak ezabatuko ditugu.
- NOAUAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

txea izatea eta euskara jakitea beharrezkoa izango da. 617792736

Laukote okindegian, astebukaeretan lanaldi erdiz aritzeko. 634 401 171

Aginaga sagardotegian, lanaldi osorako zerbitzaria behar da. Euskaraz jakitea beharrezkoa da. 943 366 710

Sukaldari bat behar dugu Kalezarko Matiaren zaintzadun etxebizitzan auzuneko kafetegirako. 670 654 272.

Lan egin nahi duzu zerbitzari bezala 40 orduko kontratu batekin? 680483164.

LANPOSTUAK

LAN ESKAERAK

Soziosanitario titulua dut. Adinekoak zaintzeko prest, edozein txandatan. 611 72 79 74.

Orduka garbiketa-lanak egingo nituzke. Garbiketa-lanak egiten esperimentzia. 602 082 583.

Emakume bat, interna bezala lan egiteko prest, etxeko lanak edo adinekoak zaintzen: 602 586 014.

Orduka edo jornada erdiz etxeko garbiketarako egiten ditudan 50 urteko emakume bat naiz. 643 576 129.

BESTELAKOAK

Etxean egindako gozogintza enkarguz eskatu dezakezu @deliciascreativasdey / 624356763 (Deynis)

Paseoko bizikleta bat daukat salgai. Ez dauka markarik. Pertsonalizatuta egindako bizikleta da eta egoera oso onean dago. 644 619 358.

TELEFONO INTERESGARRIAK

Udala	943 371 951	Gure Pakea Egoitza	943 368 770
Atez ateko bulegoa	900 776 776	Gure Elkartea Egoitza	686 554 145
Udaltzaingoa	943 361 112	Arrate Zahar Egoitza	692 898 492
Sexu Aholkularitza Gunea	697 919 516	Salbatore Parrokia	943 361 239
Gizarte Zerbitzuak	943 377 110	Korreos - posta zerbitzua	943 362 894
Bake Epaitegia	943 372 336	Anbulategia	943 362 013
Oiardo Kiroldegia	943 372 498	Amenabar botika	943 376 076
Sutegi Udal Liburutegia	943 360 692	Iturralde botika	943 363 395
Pobxoenea	943 371 999	DYA	943 464 622
Kzgunea	943 023 684	Gurutze Gorria	943 272 222
Zumarte Musika Eskola	943 371 594	Emergentziak	112
Etumeta AEK euskaltegia	607 609 379	Genero-inkarria, arreta	016
Kalezar Eguneko Zentroa	943 365 249	Gonzalez Ehorztetxea	943 362 163

GUARDIAKO FARMAZIAK

EGUNEZ

Osteguna, 13	ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte-Oria / 943 36 35 49
Ostirala, 14	URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte / 943 36 65 67
Larunbata, 15	ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte / 943 36 26 52
Igandea, 16	ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte / 943 36 26 52
Astelehena, 17	DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte / 943 37 11 51
Astearte, 18	ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte / 943 36 26 52
Asteazkena, 19	DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte / 943 37 11 51
Osteguna, 20	LASA SUQUIA Kale Nagusia 42. Lasarte / 943 36 17 74
Ostirala, 21	GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte / 943 36 07 08
Larunbata, 22	ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte-Oria / 943 36 35 49
Igandea, 23	ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte-Oria / 943 36 35 49

GAUEZ EGUNERO

(22:00etatik 09:00etara)

AIZPURU ODRIÓZOLA, KARMELE: Latxunbe Berri, 11 Hernani 943 33 60 77

Gipuzkoako farmazien egutegia eskura izateko:

COF Gipuzkoa aplikazioa deskargatu Google Play-etik edo AppStore-etik.

ZORION AGURRAK



Urte askuan gure etxeko erreginari zure 13. urtebetetzean. Ondo-ondo ospatu, etxeko guztien partez muxu pottolo bat.

**Zorionak Haizea!**

Abuztuaren 10ean 6 urte beteko dituzu! Prestatu belarriak! Muxu erraldoi bat familia guztiaren partez eta, bereziki, Xune, Xai eta etxeko oilo, oilar eta txitaren partez.

Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitarteok; hiru bide dituzu NOAUaren bidez zorientzeko:

Internet eta papera

noaua.eus-en erabiltzailea sortu eta <https://noaua.eus/zorionagurrak> helbidean sartu zorion agurra.

Urtebetetze egunean bertan argitaratuko da webgunean eta dagokion NOAUA astekarian. Oharra: astelehen arratsaldetik aurrera iristen direnak hurrengo astean plazaratuko ditugu.

Posta elektronikoa

Mezua bidali erredakzioa@noaua.eus helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria/auzoa, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.

Ordezkaritzak

Etor zaituz NOAUaren bulegora (Bordaberri 3, behe) edo deitu 943 360 321 telefono zenbakira.

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTELEHEN EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 360 321 / erredakzioa@noaua.eus

LARUNBATA 22

USURBIL "Usurbil Museo Irekia" bisita gidatua

Izen-ematea: 3 eurotan (18 urtetik beherakoek doan). Informazio gehiago: 650usurbilbizi.eus
12:00-13:00 Sutegin.

IGANDEA 23

USURBIL Espainiako Gorteetarako hauteskundeak

Hauteslekuak: Udarregi Ikastola, Haur Eskola, Zubietako Eskola eta Lanbide Eskola, Santuenea Elkarte eta Aginagako Eskola.
Ordutegia: 09:00-20:00.

USURBIL "Usurbil Museo Irekia" bisita gidatua

Izen-ematea: 3 eurotan (18 urtetik beherakoek doan). Informazio gehiago: 650usurbilbizi.eus
12:00-13:00 Sutegin.

ZUBIETA Jaiak

Egitaraua, 15. orrialdean.

ASTELEHENA 24

USURBIL "Usurbil Museo Irekia" bisita gidatua

Izen-ematea: 3 eurotan (18 urtetik beherakoek doan). Informazio gehiago: 650usurbilbizi.eus
12:00-13:00 Sutegin.

ZUBIETA Jaiak

Egitaraua, 15. orrialdean.



Errekaldetik Txikierridira 11:15ean iritsiko dira eta Usurbildik Aginagara joko dute.

Donostiako Klasikoa bitan igaroko da gure errepideetatik

Donostiako Klasikako txirridulariek bitan zeharkatuko dute Aginaga eta Usurbil N634 errepidetik barrena uztailearen 29an. 230,3 kilometroko ibilbidean zehar, Errekaldetik Txikierridira 11:15 aldera iritsiko dira eta Usurbildik Aginaga aldera joko dute. Gipuzkoan barrena ibili ostean,

Mendizorrotzera itzuli eta handik gerora Aginagara bueltatuko dira berriz 15:57 aldera, eta 16:03 aldera Usurbilerira. N634 errepidetik barrena kontrako noranzkoan Donostia aldera joko dute gero. 17:00ak aldera amaituko da proba. Informazio gehiago, klasikoa.eus atarian.

Musika Hamabostaldia Usurbilen

Donostiako 84. Musika Hamabostaldiko kontzertuetako bat Usurbilen egingo da. Monica Melcova organo jolea Alaia Martin eta Andoni Egaña bertsolariekin ariko da. Abuztuaren 15ean, arratsaldeko 20:00etan, Salvatore Elizan. Sarrera doakoa izango da. Informazio gehiago, quincenamusal.eus atarian.

"Usurbil Museo Irekia" bisita gidatuak

Uda honetan herriko kultur altxorrek ezagutzeko bisita gidatuak astebururo larunbat eta igandeetan, 12:00etan Sutegitik abiatuta.

Jai egunetan ere bai
Baita jai egunotan ere; uztailearen 24an, 31n eta abuztuaren 15ean. Abuztuaren 15ean hain zuzen, 20:00etan Salvatore Elizan izango den Donostiako Musika Hamabostaldiko kontzertuaren aurretik izango da "Usurbil Museo Irekia" ekimena, 17:00etan hasita. Bigarren hitzordu berezi bat; pasa den igandean bezala, abuztuaren 19an ere "Usurbil Museo Irekia" bisita gidatua Zumeta estudioan amaituko da.

Izena eman behar da
Hitzordu hauetarako izena aurrez eman behar da, 650usurbilbizi.eus atarian.

Inaki Iturgintza
BEROKUNTZA • GASA • AIRE EGOKITUA • ZORU BERO-EMALEA
ITURGINTZA • ENERGIA BERRIZTAGARRIAK
info@inakiiturgintza.com - www.inakiiturgintza.com
600 024 825

ARTZABAL
BASERRIA • JATETXEA
www.artzabaljatetxea.com 943 36 91 39

• EGUNEKO MENUA
• KARTA
• RAZIOAK
• HANBURGESAK
• BOKATAK

www.noaua.eus
USURBILGO ATARIA



ANORGA TXIBI S.L

KRISTALDEGIA



Beirazko itxitura sistema berria!!!
Perfil bertikalik gabe!!
Zure balkoia itxi nahi baduzu galdeiguzu!
Aukera zabalak!



beirazko itxitura
seeglass one
profil bertikalik gabe

·komertzial instalazioak ·beira bikoitza ·segurtasun beirak ·dutxa-itxiturak eta irristailuak
·ispiluak ·barandak ·kristal mota guztiak...

Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA 943 37 17 33- 610 45 93 45

ZUBIETA



ONDO PASA SANTIOTAN!

